

# EUSKERA

EUSKALTZAINdia'REN LAN ETA AGIRIAK  
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

1919-1920

Iko urtea — II<sup>a</sup> zenbakia

(Iren 2<sup>a</sup> GAREN ATALA)



BILBO'N  
EUSKALTZAINdia'REN ETXEAN  
RIBERA, 18

DONOSTIA'N  
SAN IÑAZIO'REN GUTUNDEGIAN  
GARIBAY, 28

TOLOSA (Prantzi'koan)  
EDOUARD PRIVAT'EN GUTUNDEGI TA IRARKOLAN  
RUE DES ARTS, 14

1921

## **ARGITARATZAILEA'REKIKOAK**

---

Agerkari onen egintzari doazkionak EUSKERA'ren argitaratzailea'ri zuzendu bitez :

Para cuanto se relacione con la redacción de la Revista, escribase al editor :

Pour tout ce qui regarde la rédaction de ce Bulletin s'adresser à l'éditeur :

**PIERRE LHANDE, S. J.**

1, Place Saintes-Scarbes, Toulouse (France).

---

## **EROSPIDE-ARPIDEAK**

*Suscripciones      Abonnements*

Librería de San Ignacio de Loyola,  
18, Garibay, SAN SEBASTIAN (Guipúzcoa).

## **BIGAREN ATALA**

# **EUSKALTZAININDIA'REN AGIRIAK**

**I EUSKALTZAIÑEN IKER-AZTERPENAK**

**II AGIRI TA ERABAKIAK.**



# I

## EUSKALTZAIÑEN IKER-AZTERPENAK

### § I

#### GURE "ACADEMIA" ONI DAGOKION EUSKAL-IZENA

(AZKUE, EUSKALTZAININDIA' REN BURU YAUNAK, 1920<sup>ko</sup> URTARILAREN  
7 GÄREN EGUNeko BATZAREAN EGINDAKO IKERPENA<sup>1)</sup>)

Orain urte ta erdi argitaratu nuen Sakeliztegian, azkenori aldean itz auek irakur dezazke : *Academia* (de la lengua), izkelzaingo ; *Académico* (de la lengua), izkelzain. Guri bizkaferatu diguten arazo au, *Académico de la lengua vasca* izate au, adiarazteko itz bat orok, geyenok beintzat, lengo esertaldietan egokitzat artu degu : Euskalzain. Itz au batzuk aldatzaka (aldatu gabe) nai lukete, beste batzuk nolabait besteratuz. Zuberotaría etxeokoago, maninago ta gozoago zayo *euskalzain* esatea ; Añatiaaría, *euskelzain* ; Lekeitiaón oni, *eskualzaiñ* ; Aspandararia, *eskualzain* ; Giputzari, *euskalzai* ; napaíen batzuri, *auskelzai*. Norbaitek bear bada, ta eŕia alde bat utzita, nayago luke *euskelzain* entzun, beintzat idatzi. Gizonak : baltzu onetan batuorduko « buru bezanbat aburu » gure artean izan badira, ate ori, irtetzeko, zabal dezagunean, aburu bakar bat

1. Ikus batzaí oŕen agiria, EUSKERA onen I<sup>ko</sup> Atalan, 62 gaŕen oŕian.

izan bite ororena, Baltzuaren aburua. Onetarako iker ditzagun ele oén izkinak (silabas).

I. *Eus.* Napañoako Sakandaŕak (los barranqueses), asi Altsasutik Irurtzuna bideko euskaldunak, eta Bilbo-aldeko batzuk (Zolo, Ubaor ta Elejabeitiakoak) *eu* ori ta beste beredin *eu* maiz *au* ezpainenetan itzultzen dakite. *Nauk, gaurea, aurie,* entzuten da Bizkaiko basauri orietan, *neuk, geurea* ta *euria*-ren ordez; *Laurí* entzun nuen Lakuntzan. (Izteria eginez gerokoak ditut batzai auek) *Laurí, neurí*-ren ordez; *auntzale* Lakuntzan ta Uarte-Arakilen *eule* (tejedor, *tisserand*) adierazteko; ta bai Sakandaŕok eta bai Paga-saŕipeko Bizkaitaŕ ayek *auskeraz* ari izaten dira. Ostagi (fenómeno fonético) au bestera entzuten da Gernikako ibaŕ ederí arretan : *au*-ren ordez *eu* : *geuŕ, euŕera, euntze*; *gauŕ, auŕera, auntza* ebaki-beaŕean. Orok dakizute Fonétican ezin ar ditezkela legetzat onelako ostagi nunbaitekoak (fenómenos particulares).

Zuberon ta Bizkaiko Orozkon ta Napañoako Aezkoan, Saraitzun eta Eronkarin *eus* ori *us* ebakitzen dute : Zuberon *üs.* *Uskaldunak* dira ayek; Zuberotáŕak, *üskaldun plaiňak*; Orozkoáŕak, *uskeldunek*.

Ondarabian *eskara* entzun izan det *euskera*-ren ordez. Hiribarnek *eskaldun* ta *eskalherí* dakazki. Lekeition *eskueraz* ta *eskualduna* ta *eskualdeŕi* esan oi dute askok. Bilboko paper *Euzkadi*, « *Eskuadi* » iragartzen dute Lekeitioko kalétan. Lapurdin ta Benapañoan *eskaldun*, *eskualherí*, *eskuarda* entzun oi da askoren ezpainenetan. « *Metátesis* » aipatzen dute erdaldunak onelako ostagia (fenomenoa). *Arkal* ta *arpel* ta *elderdu* esaten dute Bizkaitaŕ askok *alkar* ta *alper* ta *erdeldun-en* ordez. Aldatuak baino aldatzakak aintzat artzekoago dira ta guk ere *eskaldun* baino *euskaldun*, zaŕago ta aldatu gabea dalako, aintzat artu bear degu.

Gure egunetan norbaiti itz eder guren onetan *z* sartzea otu zitzayon : *euzkera*. Eriak gure egunetararte eztu, guk dakigula, *z* au inoiz ez inon erabili ta egun ere eriak berak ez. Etimologia deritzayon yakintze ori etorkoá (condescendiente) da, biguña da ta esku-zabala, ugaria. Agortzaka zein-nai lanetan, gogoz ta beti geron erara laguntzen digu.

Etimologiak agintzen dielako, *asko-ren* ordez *azko* era-biltzea otu lekiroke norbaiti. Asko oíek erderazko crecimiento (*accroissement*) iragartzen duela *ç* nork eztaki? Crecer (*croître*) ezta esaten euskeraz *asi*, *azi* baizik. Oíegatik erderazko « mucho » (*beaucoup*) adiarazteko, *askok* baino egokiagoa dirudi *azkok*. Baita eraman genezazke. Etimologia oíek *astoa aztoa* idaztera ere. Oihenartek bere *Atsotitz* txanbelin batean dio : *Nahi duenean doake bakhura, arstoia ta arbalda dituena eskura*. Yakina da Oihenartek *zedo*, frantziaíak bezela, *s* idatzi zuela *ç* Zer da *arstoia* edo *arztoa*?

Zer da yatoñiz, Etimologiaren argitan *ç* eletxo zaí-zaí polit ori? *Orstoia* oíi txikia danez, *arztoa* artz txikia da. Euskaleñian antzina, anbiolan, dena basoa baitzen, etzen astorik, astoak toki zelaya nai du-ta. Artzak bai ugari ziran. Baso ta oyan ta isasi ta txaraka ayetako uíta ezkuíak gizen-gizen azi ere egiten zituzten. Gizonak, sañiak (las espesuras) egazti ta aberentzat utzita, uriak sortu zituztenean, zama ta sendoñak yasotzeko lagunak nairik, nimbaitik zamari otzan ixil apal bat ekafí zuten. Zamari ark, bere ile beltz ta buru andiz artza zirudielarik, izen bat bear-ta, *arztoa* ezañi zioten deituratzat, oíi txikiari *orstoa* bezela. Orstotik *osto* atera zutenak *arztotik azto* azaldu ziguten. Oíra oí zamari ile-beltz, buru-andi, otzan, apal onen izenaren yatoñia. Beraz *z* erabili bear-degu aipaldi bakoitzean, yatoñizko *z*, artzarena, Etimologiazkoa.

Etimologia ori, odehyak bezelako aldakofa da ta gerekatxoa, geldirik egon ezin dana : batean *s z* itzuliz geroz, bestean *z s* bigurtuko digu. Onelaxe eman dizkigu *zazpi*-ren ordez *saspi*, *gazte*-ren ordez *gaste*, *guzti*-ren ordez *gusti*, ta, *befiz*, *adiskide*-ren ordez *aizkide* ta *euskera*-ren tokian *euzkera*. Oriek atzo. Egun *azko* ta *azloa* eman dizkigu. Biar nai degun bezenbat altzoratuko digu; opaka ari da beti. Lenago aspertuko gera gu berari eskatzen, bera guri eskaintzen baino. Gizonak : *Etimologia* aizetsu ori ibilgailutzat degula, izkeraren bideak ikertu nai baditugu, egun alayak zoragañaak igaro genezazke, enura gabe; baina izkera bera poñokatua yañiko zaigu. Zerbait gizaldi osoetan ta Euskaleria guzian *ese-z* ebakia izan bada, bijoa Etimologia ori bere bidean, bere *z guziak* soingainean dituela, txoratu gaikezan baino lenago. Bego, beraz, oso-osorik *euskalzain-en* lenengo izkina : *eus*. Goazen orain bigafenera : *kal*.

II. Gure eñitar batzuk *kel* esan oi dute, geyenak *kal* : *euskaldun*, *euskalzale*, *euskaleria*; baita *euskera*, *euskararen* ordez, diotenak ere (ta Goiko Napañoan ta Bizkai ta Gipuzkoan ala oi dute) geyenak *euskaldun*, *euskalzale* ta *euskaleria* dauzkate ezpaintedan<sup>1</sup>. Euskalki askotan *ua-ren* ordez *ue* erabiltzen da : *eskue*, *agindu deu*, *apur bet*, *luzero*, *eskua*, *agindu dau* ta *apar bat* ta *luzaro* esan-beañean. Oñelantxe *euskaldun* ta *euskaleria*-aren ordez sortu dira nere ustez *euskeldun* ta *euskeleria*. Sinestailutzat auxe daukat : *eskua* esaten dan aldêtan *euskaldun* esaten da ta *eskue* erabiltzen danetan *euskeldun*. Lenagokoa da ta aintza-koagoa dirudi *euskaldunek*, erabiliago ere badegu. Nondik otedatorkigu, ordea, Araba ta Bizkai ta Gipuzkoako gizonoi *euskera e-z*, *euskaldun a-z* esatea? Maite-tik mai-

1. Ikus geigariañ irugaén oaŕa.

*tagari* ta *etsetik etsadi* bezela sortu otezaizkigu? ´ Ala, beste guzien antzera, auetan ere *euskara* noizbait ebaki otezan?

III. Urats bat auferatuz goazen orain irugañen izkeria : *zain*. Giputz geyenak eta Napaí askok *zai* esaten dute *zain-en* ordez; *izoki* ta *sui* ta *ipui...* *izokin* ta *suin* ta *ipuin-tzat* bezela. *Zain* dunak askozaz geyago gera : Araña, Bizkaitaí, Lapurtaí ta Zuberotaí guziak eta Napaí geyenak. *Euskalzain*, ta ez *euskalzai*, artu beaí degula erabaki diteke beraz<sup>1</sup>. ´ Eta *euskalzain* ala *euskaltzain*? Auxe da nere ustez arlo onetako ezbairik zailena, erizkizunik gaitzena. ´ *Elek* eta *zedak*, alkar yotzean, ezaldute *ltz* egiten? Noiz ta nola dan ; itz batzuetan bai, bestetan ez.

Agots-lege (leyes fonéticas) batzuk itz-baíukoak dira (vocabulares), besteak bi itzen artekoak (perifrásicas), batzuk itz soilenak (temáticas), besteak itz yantzienak (morphológicas). *Il tzan*, *il tzirean* esaten degu Bizkayan. Aintzat, Aita Zabala ta Añibaíro idazle andiak izan ezik, besteek eztitu aintzat artu onelako gertakariak. Oriek ofela izanaíen, erderazko *plenilunio* eztegu *iltzar* esaten, *ilzar* baizik. Ekaí-bería ta ekaí-zaíra bezela il-bería (atzo naiz erenegun ildakoa) ta il-zaíra (orain iru-lau urte il zana) esaten degu.

Itz soiletan, azkitz (sufijo) gabekoetan erderazko *l* ta *z-tik*. *ltz* ateratzen du gure eñiak, egun auetan beintzat. *Allza alza-ren* ordez ; *Saltzedo*, *Salcedo* esateko ; *pultzera* bat, *kaltzak* eta *kaltzerdiak* erderazko (*calzas*) dituzte beren gurasoak. Gertakari auek (len aipatu deguna) *perifrásicas* dira batzuk, bi itzen artekoak ; besteak *temáticas*, itz soil batenak.

*Euskalzain*, *euskaltzain* esatea elitzake izango ez bate-

1. Ikus geigarían bigaíen oaíra.

riko, ez besteriko legea, ez (*perifrásica*) « il *tzirean* » bezela, ezta Saltzedo ofetako (*temática*) ere. (Ley morfológica), itz yantzi balen legea, izango litzake *euskaltzain*, lege balitz. Itz onen *l* yatoñiz *r* zan : *euskera, euskara*. Gure egunetan norbaitek bere burutasun batentzako zurkaitz ta euskailutzat *ele* « izkera, mintzaya » dala asmatu du. Ezkarotz deritzayon napañ-urixko batean nerabearteiko oyukitxo (kantatxo) taxa au ikasi nuen :

Gure aur konen dotea  
*karakol* utsen betea :  
agian bai, agian ez;  
txoriak pikuan ezer ez.

*Ele* ta *izkera* berdintzat artzea eztet nik esango « mañaskulu utsen betea » danik ; baina zerbait baldin bada, agi utsezkoa da : « agian bai, agian ez », erderaz « en apariencia ». Iratez *ele* oírek itza adierazten du, itz bakaía ; izatez ezta « izkuntza, mintzaya, izkera. » Euskaleñiaren eskuinalde orotan ezagutzen dute *ele* : Baztanen asi-ta Eñonkariragino goiko Napañoan, bekoan nonnai ta gainera Lapurdin ta Zuberon ezpainez belañi egunoro ta orduoro dabil itz ederí ori. Inon eztu itzaren baino beste zentzunik (acepción). Bada, ofegatik, nere ustez, goi-bétxoren bat *ele* ta *itz*-artean, frantzesen *parole* ta *motek* alkañen artean duena.

Goazen orain arira. ¿ *Euskalzain* ala *euskaltzain*? Itz orien *l* agots aldatua da, yatoñiz *r* zan : *euskera* naiz *euskara*. Gure mintzai ederí onek onelako gertaldietarako lege bikoitz bat du : lege taxa (bello), argia ta ondoretsua.

Ona bada : edozein muñ-ulketak aldakuntzea eskatzen du, agots ulduaren uñengoa aldakizun bada. Erderaz (la supresión de un fonema orgánico<sup>1</sup> exige permutación,

1. Generalmente, consonante.

siempre que el siguiente al elidido sea permutable). Gure fonética-legētan *ts*, *tz* ta *tx*-ren uŕengo agotsak, *bodega*-koak badira; *petaka*-ko itzultzen dituzte, berak *t* galduz: *izkera*, *izkimizki*, *izketa*, *izmizti*... *itz*-etik datozi; *aitz*-etik, *aizkora* ta *aizto* ta *aiztu* eta *azkoiti* ta *azpeiti*; *auts*-etik, *auskaldar*, *auspo* ta *austegi*; *mots*-etik, *moxkote* (erderaz, rechoncho) ta *moxtare*; *ozpera*, *otz bera* da; ta *ozpiko*, *ortz biko*. *Basabe* ta *Mendibe*-ren *be* *pe* itzultzen da, *l*-ren ondoan: *Aizpe*, *aspe*, *axpe* (*aitzbe*); *Arizpe* (*aritzbe*): *Sagardo*, *sagardui* ta *elordi*-ren *doi*, *dui*, *di*, *toi tui ti* itzultzen ditugu: *Uŕuztoi*, *ameztoi*, *artzui* (*Astuy*), *arizti*....e.a. *Dirudun*, *bizardun*, *osasundun*-en *atzizki* ori *lun* egiten du gure *itzek*: *iztun*. ¿ *Euskalzain* naiz *euskaltzain* lege onen azpian bizi oteda? ez. Oŕen legea beste au degu: « Aldakuntze batek eztu aldatzen uŕengo agotsa, au aldakizun izan-aŕen. » Erderaz: « una permutación no exige otra, aunque el fonema contiguo sea capaz de ser permutado ». *Euskaldun*, *euskaleŕi*: 1 ori, len esan degunez, *ere*-ren alda-kuntzea da. Lege au ikertu-orduko, zerbait oartu beaŕa naiz. *Linguistica* deritzayon yakintzea ezta, erderaz esango genukean, *ciencia matemática*. Bi ta bi linguistican eztira beti lau izaten. Len azalduriko lege ortaln ere, geyen-geyentsuenetan, *bodega* *petaka* itzuliaŕen, *itz* banakaren batean *g* ezta *k* itzultzen. Bizkayan berean askok *azkurea* esanaŕen, nere amarengandik ikasita *azgurea* esan oi det ník. Baztanen *azkalea* entzun izan det, baina Otzandianon ta Gipuzkoa ta Napaŕoako uriren batzuetan *azgalea* era-biltzen dute. Legea lege izateko tokirik geyenetan erabil-tzea aski da. Ona emen *l* aldatu ori *bodega*-ren *izki* oŕezaz nola alkartzen dan, bat ere gogortu gabe. *Abelbürü* (S) ez *abelpürü*; *abelgoŕi* ez *abelkorí*, *abellegi* ez *abeldegi*; *abelzai* ta *abelzain* (BN. ta S.), ez *abeltzain*. *Aalzain* ta *alzai* (AN); *altzai* ere (AN, G) batu det Napaŕoan berean, iztegia argi-taratuta gero. Iruritan (Baztanen) gertakari edeŕ au en-

tzun nuen : *Altzaingoa* (pastoreo público) *nere kontura artu dut*. *Athalzain* dio Axulaíek, Haranedeék *athaltzain* ; ta gero aldakuntzerik gabe entzun ditut *atalzakur*, *atalzai* ta *atalzapata*. *Eri-tik* (ere ele-turik) *elbari*, *elgoiri*, *helgaitz*; aldakuntze gabe, *elpari*, *elkaitz* esan gabe. *Erderatik erdaldun*, ez *erdallun*. *Euskeratik euskaldun*, *euskalgaitz*, *euskalzale* (ériari entzunikoa degu au ere). *Estari-tik* entzun ditut *estalgi* ta *estalki*, *estalbe* ta *estalpe*. (Atzizki au len *bezan*, aldakuntzez *pe* itzultzen zan), aspaldion ere *pe*, aldakuntze gaberik esaten degu : *eskape*, *maipe*, *menpe*. *Euskeratiko itz* auek ériarenak dira : *euskaldun* (c....) *euskalgaitz*, (AN, L) *euskalgaitzo* (B, G) ta *euskalzale* (B, G), *üskaldün* (S). *Gari-tik galbae* (B); *galbara* (AN, B, G), *galbizar* (G), *galgarau* (B, G), *galgoiri* (AN, B), *galzoiri* (B), *galuzkur* (B), *galzikin* (B, G), *galzuri* (B-a-o). Ezunerik (excepcion-ik) *galtzustar* batu det ta *galtzu* ere baotedan aipatu zuen norbaitek emen gure azken-batzáfean. Zuberotárák *zamari-tik zamalzain* eratu dute, ez *zamaltzain*. Itz gutxitan *l + z = lz* ala *llz* (*Euskalzain* ala *Euskaltzain*) dala yakineragiteko eztet gertakari geyago bildu al izan. Aipaturiko gertakari orietan berogeit la bat dauzkagu Euskaltzainen aldekoak, Euskaltzainenak lau baizik ez; *Altzi* « hilacha, effilure », uste izan lezakeanez *ari-zí* yatoríz bada, bost. Lege gutxi, agots-lege gutxi uste det ediren litzkeala au baino sendoagorik.

*Euskerazain euskalzain* esan bear bada, *euskerazale euskalzale* esan bear dala ageri da ta gainera ere erabiltzen du gure ériak. Norbaitek emen azken-batzáfean aipatu zuen ériak eztuela itz ori esaten. Neronek entzun det, eta maiz ala ere, Bizkayan ta Gipuzkoan. Ori baino goratuago dirudien itz bat, *vascologo-ri* dagokiona, Nafarroako Gojainen aitzurlari batengandik belaíratu zitzaidan : *euskalari*. *Zale* ori beste itzok ere eztu *tzale* egiten : *bakarzale* (AN, B, G), *egurzale* (G), *urzale* (AN, B, G), ta ofezaz

gainera ezpain ta belarrietan darabilzkigu *azur-ta ezurzale, maminzale, odolzale* ta beste eun ofelako.

Len aipatu nituen emen *aíantzale* ta *aíaintzale*. Lenengoa afantzan ari dana da, beste izenez *aíantzaria*; *aíainzaleak* aldiz, áraina gogoz yaten duena adiarazten du. Lenbiziko itz oíetan ulketa bat (supresión bat) degu : *aían, i uldurik*. Eta atsaíean (asieran) esan dizutet : ulketa batek aldakuntzea dakaéela ondorik. *Ardi, gurdia* ta *idi-ri di ta begiri gi ulduezkerro zain tzain* da : *artzain, gurtzain, itzain, la belzain*. Eriak *Euskaltzain* ta *Euskaltzale* esango balu, *euskaltun, euskalkaitz* ta *euskalkaizto* erabiliko lituke.

IV. Laugañen uráts bat, azkena, eman dezagun. « Académico de la lengua vasca » *euskalzain* bada ñola adierazi dezakegu « Academia de la lengua vasca ? » Azkenbatzaíean *Euskalzaingo* zala esan nizuten neretzat itzik egokiena. Egun auetan *go atzizkiak* dituen bost zentzunak aratuz ta *di beti zentzun batekoa* dala ikusirik, nere eritziai zurkaitzak ezartzera etoíia enaizelako, egiaren menpekoa baino besterik enaizelako, zuen arteko batzuen eritzia zuzenagotzat artula, nik ere *Euskalzaindi* dala uste det gure Baltzu au adiarazteko itzik egokiena.

Beste itz eratoríiak (derivados) bererakoak dirudite : *Euskalzaingo* (cargo de académico), *Euskalzaïnburu* (director de la Academia), *Euskalzaintzako* (correspondiente de la Academia) ta *Euskalzainide* (auxiliar de la Academia), *Euskalzain-lankide* (colaborador de la Academia).

1. Ikus geigarián irugareñ oaña.

§ II

## OAR BATZUK GEIGAÍTZAT

(AZKUE YAUNAK BATZAR BERTAN EGINDAKO IKERPENA)

LENENGOA. *Izelzain* « académico de la lengua en general » ta *euskalzain* « academico de la lengua vasca » bezela *izkelki* « dialecto en general » ta *euskalki* « dialecto vasco » dira. Arana-Goirik *izkelgi* irazan zuen, beste itz berí asko bezela, zoñotz ta egoki; baina orduan gure Fonelica etzan aski ezagutzen, *ki* ori (izen eratorien-*ki*), *l*-ren aldame-nean izanañen, *gi* ezin itzuli ditekela yakiteko.

BIGAÍENA. Baliteke norbaitek *euskalzain* ori « anfibio-logia-kabia » dala yaŕkitzea ! « *academico de lengua vasca* » ta « *vena vasca* » izango litzakigula; ta naspile oři bidea ebakitzeko obe litekela *euskalzai* erabiltea. *Euskalzai* berau ere beste ain beste genuke : naspile-ituňia. *Zain* « *vena* » bezela, *zai* « *salvado* » degu; ta *euskalzai* « *salvado vasco* » ta « *academico del vascuence* » litzakiguke.

IRUGAÍENA. *Euskaldun*, *euskalgaitzlo*, *euskalgaitz*. L oři yatoňiz omen-dagokio *petaka bodega* itzultzea. Au ere noiz ta nola dan.

« Deklinacionean » Bizkayeraz *Usurbilgo*, *Usurbildik*, *Laŕaulgo*, *Laŕauldik*... esaten degu; *ilgo da* ere bai, *ilko da*'ren ořdez. Azken-gertakari au ere deklinacionezkoa da.

Izen eratofietan, Bizkayeraz era, bestera da legea : *l*-k *petaka*, *petaka uzten du* : *Isilka*, *misilka*, *eztulka*, *mutilko*, *isilkor*, *itzalkoi*, *isilltasun*, *aultasun*. Atzizki bakaŕ bat dazaugu, onelako itzetan, *t* biguntzen dueña : *tu*. *Isildu*, *auldu*, *mutildu*... Atzizki au latinetikoa emendegu ta ez zaŕ-zafa. Gainera, bigunaldietañ izan izaŕen, Bizkaiko seme ta Giputz askok *du* auŕez erabilten dute, batez ere

orain eun bat uñteráte. Eñdaladitz-ardun geyenen ondoren ta *er* ta *irdun* batzukin ere bai : *Konfesadu, eñezadu prijodu, konbertidu, esleidu, leidu, koyidu...e.a.* Azkoiti-Azpeitiko *eskau, gertau, gerau,.....* ta beste beredinen yatofia ezta *eskatu, gertatu, geratu* : *eskadu....., baizik.*

Gure egunetan Bizkaitañ geyenak, ez bakañik ñ baita u ere uldu egiten dute ofelako eñdaladitz askotan : *bola, tira, eñreza, konfesa, laga* edo *larga*. Bai ta euskaladitz batzuetan ere : *gerita, alera.*

Euskerazkoa dirudien oñni-tik oñnidu esaten degu bizkayeraz. Frantzesak eta italiañak onen antzeko itz bat dute : *fournir, fornire.* Aleman zañen *frumjan* omenda onen yatofia.

LAUGAÑENA. Ikeípen onetako itz bat « *irtetzen* » entzutean, norbaitek euskalgaiztotzat aítu zuen itz ori. *Yotzen, isiltzen, ekaítzera* esan-añen, *tze* ori -n azkenkitzat duten aditzai ezomendagokie. *Egitea, esaten, egoteko, emalera, entzutea-ren* oñdez *egitza, esatzen, egotzeko, ematzera, entzulzea*, euskalgaizto ofetan buruz bêra erori gabe, ezin erabili ditezke, Egia. Bainan eñiak, gure nagusi dan eñiak, *tete-ri* gogoñ eritzita naski, bi aditz enedun, *tze* bitaíte dutela, erabili oi ditu : *írten* ta *eten.* *Irtetzen, etetzen, etetzen, írte-ri* *egitea, esaten* du gure agots-legeeginak. *Írten, eteten, írte-ri, etetea* : auxe litzake euskalgaiztoa.

BILBÓN, 11-XI-1919.

§ III

EUZKERA ALA EUSKERA ?

(URTARIALEN 7 GAREN EGUNeko BATZAREAN EGINDAKO  
IKERPENA)

Itz au, berak dituan aldakuntza guzietan, idazle orok 1901 urterarte beti-beti s'kin idatzi dute : euskalgi guzietako euskaldunak urte luzeetan s'kin ogutzi dutela ta gaur egunean ere ofelaxe oguzten dutela iñok ere ezin ukatu dezake. Arana-Goiri berak ere au aitortu zuan : « Dícese euskera con s; pero escribo ya euzkera, por que entiendo que esta es su forma pura, fundado en la etimología que le atribuyo y luego veremos. » Azkenengo emezortzi urte oyeten, Arana-Goiri'ren idazti ori argitaldu zanetik aufera, idazle askok euzkera z'kin idatzi dutela edonork daki.

¿ Nola idatzi beaŕ ote-degu? Auzi au erabaki baño lenago, nere aburuz, lenbizikoa dan beste auzi bat erabaki beaŕ da. Itz-sorkun ala abots arauzko idazkera obetsiko ote-degu? Bi idazkera oyetatik zuzenena ¿zein ote-da? Eta batez ere, Euskal-Ikaskuntzak gaur egunean dauden bezela, euskerarentzat idazkerarik onena, onurakoŕena : euskal-idazleok elkaŕ artzeko biderik eŕax eta egokiena ¿zein ote-da?

Euskaldunok, beste gauza askotan bezela, gure izkunta onen idazkeran ere elkaŕ ezin arturik gabiltza. Idazle batzuek itz-sorkunik aintzat ere ez dute artu nai : bestetzuek itzen-eŕoak aztertu ta beste oro, idazkera ere bai, itz-sorkunei erakidetu beaŕ zaizkiela diote. Itz-sorkun arauzko idazkera abots arauzkoa baño obea danik ez det uste : baña baĺitz ere, gaurkotz beintzat idazkera ori

euskerarentzat ezin artu dezakegu, onura baño askoz ere kalte geyago lekafke-ta. Eta ziñez, itz-sorkun arauz idaztea erabagiko bagenu, itz oro ta bakoitzaren efoak ikertu, aztertu ta ezagutu beaíz izango genituke; baña lan gogoí eta luze au ç noizko bukatu? Eta lan oretan ariko giñakenok ç noizko elkaíz aítu? Iñoz bukatu ezindako lana, eguneroko auzi, eztabaidea ta lazka-bide gogoikaria izango litzake.

Euzkeraren zori dala-ta, gure artean sortu diran eztabaidea gogoí eta luzeak gogora ekaíz itzazute. Ainbeste idatzi ta gero ere, elkaíz artu ote-degu ç elkaíz aítzeko bidean ote-gaude? Eztabaidea ori azi zanean eta gaur berdin gaudela deritzat; bat etoízko itxaropenik gabe gaudet, bakoitzak bereari eusteko ziyoak, batez ere auzia, au bezela, iluntxoa danean, eíráx édiren oi ditu-ta.

2º) Beste itzak alde batera utzirik, s'edo z daukatenak aíz ditzagun. Itz-sorkunei dagokien idazkera erabili nai badegu, itz orien efoak lenbizi aztertu, bilatu ta idoro beaíko ditugu. Ofelako itz bakoitzari dagokion lana, euzkeraren zoriek eginerazi duanaren aldi laurdenarekin bukatuko ba'genu ere, itz oriek asko dira-ta ç guziei dagokiena ç noizko bukatu? Eta ekiñaldi gaíatzak egin ondoren ç bat etoíkiko ote-giñake? ¡ Ezta uírik eman ere! buru bezenbat aburu agertuko lirake ta ainbeste lan egin ondoren, alpeñikan ekin diogula aitoítu beaíz izango genuke.

3º) Itz bakaí bat aipatu dezagun: *gazte*. Itz au idazle orok oraintsu arte z'kin idatzi zuten: orain askok s'kin idazten dute. Bere soñkuna auxe dala dirudi: ugatz + te. Lenbiziko gedin ori eíráx jausten da: gazaita, gazalaba, gazama. « Te » atzizkiak aldia dikuí: baña aldi ofetakoa dan zerbait ere bai.

† Negute ez da negu-aldia bakaírik: negu-belaírari ta neguan jayoriko abereari ere euskeldunak negutea deitzen diote. Ugatz zer dan bai-dakigu: baña itz oñen ikuípena

edatu egin zala ugazaba, ugazabandre ta oyen kide diran itzak argiro darakuste : onelan, ugazabaren bat zuanari, bere mendean zegoen bitartean ; ugazte; gazte, egokiro eretzi zitzayon. Itz-sorkun au orok zuzenetsiko luketela uste ote-dezute? ¡ Bai zera ! Gaste s'kin idazten dutenak s oñen aldeko beste itz-sorkunen bat berealaxe edirengo lukete eta bakoitzak bereari eusteko degun lerak elkar artzea ere galera ziklo liguke. Itz-soñkun arauzko idazkera au lan luze ta zalegia ta iñoz ez bukatzeko lazka-bidea izango litzake-ta, zerbait egin nai ba-degu, bide laban au utzi ta abotsai dagokien idazkera erabili askotaz obe izango dala deritzat.

Gure artean itz-sorkunlari pañegari asko izan dirala-ta, besterik gabe, lan au beaí bezela egiten ari diran euskalariai iñi-egiten dienak, okeí daude, zer dagiten ere ez daki. Lan au beaí bezela egiteko buru argi ta gogo zolia beaí dirala : gogoz lan egin eta asko ikasi beaí dala aitoñzen det ; baña gogoz ekin eta beaí bezela egin ezkerro, euskera sustraiz ezagutu ta bere pitxirik edefenakin aberastu ta apaintzeko biderik onena ere orixe dala deritzat : augatik itzen eñoa ajola andiz azteítu ta albait ongi ikasi beaí dirala diot. Baña itz-sorkunak egi-antza biduala-ta besterik gabe, itzaren idazkera ere berealaxe aldatzen dutenak. ¿ zuzen ote-dabiltza ? zuñki egiten otedute ? Ezetz deritzat.

Norbaiten iritzian egi-antz andia duan itz-sorkunak beste askoren iritziz egi-antz gutxi euki oi du : gaur egi-antz aundi duan itz-sorkun ori, beste itz-sorkun obe ta egi-antz gegayo duanen batek, aldi gutxi bañu bazteítu dezake ta egi-antz geyago duan itz-sorkun beñi onek beste idazkera bat ba' lerakus, au ere beñiz aldatu bearan geundezke ; baña zugaitzak ostoa bezela, urteoro idazkera aldatzen ibiltzeak kaltea baizik ez lekañkela ¿ nork ez otedaki ?

Augatik, euskal-itzen efoak ikasteko zeregiña batzorde berezi batek bere gain aí beza, lan au euskera ezagutu, aberastu ta apaintzeko guziz onurakoña izango zaigun ezkerro ; baña Euskal-lkaskuntzak gaur baño auferago ez dauden bitartean beintzat, lazka-bidean saítu ta eztabaidea gogoikařietan aldi ta indaňak alpeňik galdu ez ditzagun, itz-sorkun arauzko idazkera ori utzi ta euskal-idazle orok elkař artzeiko eřax eta leuagoa dan abots-idazkera obetsi beař degu.

Bañu abots-idazkera *oztez* obetsi ařen, itz bat-edo-batzuena autetsi ta sendesteko, noizbait itz-sorkunera jo beařa gerta diteke ta orduan, çer egingo ote-degu ? Arau bi oyek egoki ta gogoan eukitzekoak dirala deritzat.

1<sup>a</sup> Euskaldun orok berdin oguzten ba-dute ta idazle orok ere euskaldunak oguzten duten bezelaxe idatzi ba-dute beti, egiantza duan itz-sorkuna gora-bera, ofelako itzaren abots-idazkera beingoan ez bedi aldatu. Ofelako itzaren idazkera aldatu nai lukenak, aldakuntza ori ai-patu orduko, itz-sorkun argia, zerbait dakian eta bere senean dagoen euskalariak ezin ukatu lezaken bestekoa, idoro ta auřkezta beza.

2<sup>a</sup> Idazleen idazkeran batasunik ageri ezpa-da naiz euskaldun batzuek batera ta bestetzuak bestera oguzten ba-dute, egiantz geyen duan itz-sorkuna aintzat artu dezakegu, idazleen idazkera naiz eřiaren oguzkera oyetatik zein obetsi beař dan erabakitzeko,

« Heuskara (euskara) euskera, eskuara (heskuara) es-kara, uskara, üskara » idazle orok s'kin idatzi ta euskaldun orok ofelaxe oguzten dutela esan det. Itz-sorkuna zala-ta, 1901 urtean, Arana-Goirik lenengoz z'kin idatzi zuan ta afezkerro ofela idatzi dutenak ere, ořtarako izan duten ziyoa itz-sorkuna izan dala aitořzen dute. Itz-sorkun au itz ořen idazkera aldatzeiko aski ote-da ? argia ta bere senean dagoen euskalariak ezin ukatu dezaken bes-

tekoa ote-da? Arana-Goiri berak ere auxe idatzi zuan : ¿ Cuál es la etimología de euzko (raza vaska)? La que voy a atribuirle no se presenta con la evidencia de la « era », pero sí como *probable en muy alto grado*. Eta « euzko » ren z ofén alde beriz idatzi zuan Añiandiaga Abak : Es difícil averiguar la etimología cierta de euzko. Con todo, no deja de ser probable la presencia del elemento radical de egun y eguzki en dicho vocable. Arana-Goiñi'k : *probable en muy alto grado* : Añiandiaga Abak : « *no deja de ser probable.* » Eta ziñez, gai onetzaz alde bietatik idatzi dan guzia, astiro irakuí ta ondo oldoztu ta auzmaztu ezker, « *no deja de ser probable* » ere aski dala eíax ezagutzen da.

Egun egu + un dala : « *egu* » k argia dikuñala ugalkoá dalako, itz onek noizpait z edo *tz* zeramala : eguz edo egutz onek argia, ta au sortaldetik datoñigulako, sortaldea ere adierazten zuala : euskaldunak beren izkuntza ta guzi soñtaldetik eteri zirala ta sortaldetik eteri ziralako, beren izena ere andik aítu zutela.... Ayeru guzi oriek eziñak ez dira ziñez; baña bat ere ofela danez eskiez ez dakigu. Ayeru geyegi dira; bat edo batek eíax uts-eman dezake ta bat-zein-batek uts-eman ezker, itz-sorkun onek askotaz ere egiantz gutxiago luke. Itz oyetan : Amezkoa, Orozko, Gipuzkoa ta Bizkaya'n euzko sartzen dala diote ; baña au ere gauza ilunegia ta egiantz andirik ez duana da-la, euskeraren idazkera aldatzeko, aintzat ezin aítu dezakegu.

Fonética experimental deritzayon ofek, euskaldunak, eíren bat edo batzuetan, itz ori z'kin oguzten dutela era-kutsiko ba' ligu, orduan itz au ere bigañen tokian idatzi dedan araupean lego ke ta eíriaren bi oguzkera oyetatik zein obetsi beañ litzaken jakiteko, itz-sorkuna ere aintzat artu beañko genuke ; baña bitañtean, idazle orok 1901 urterarte idatzi duten bezelaxe, gaur eguneko euskal-

dunak ere s'kin oguzten dutela uste degun ezker, itz ofen idazkeran aldakuntzarik ez egitea askotaz ere zuñago da : augatik guk ere antziñatik egin dan bezela, s'kin ogutzi ta idatzi beaí degula deritzat.

---

§ IV

## EUSKALZAIN ALA EUSKALTZAIN (EUSKELTZAIN)

(EGUZKITZA EUSKALTZAIN YAUNAK BATZAR BERTARAKO  
EGINDAKO IKERPENA)

Emen erdera lañegi darabilgula norbaitek esan dau : biar beste norbaitek bizkaierea, ási gareneko, zokondora jaurti dogula esan ez dagian eta niretzat eñezago be bai-dalako, neure eretxi txikaí au bizkaieraz azalduko dot.

¿Eus ala euz? Euskeldun orok, antziña-antziñatik oraintsu arte, esan daben lez, bere s ta guzti, bego izkin ori : au entzun neban azkenengo batzañean. Ni gora-bera bego : buruko miñik ez dauskula ekañiko ba-neki, *bego betiko* esango neuke ; baña bego baño ez diñot, s zirtzil oíek burua berotuko ete dauskun bilduñ naz-ta.

¿Kal ala kel? Oartxu batzuk egin ezker, bigañen izkin oni be, aguí egingo dautsat. Euskal (euskel) ala euskara (euskeria) lenagokoak diran ¿nok ete-daki? Euskara-tik euskaldun eta euskera-tik euskeldun egin zirala ba-genki be, era-tik ara ala ara-tik era egin zan ala biak batera soñtu ziran eta bide banatatik datoñtan ¿au be nok daki? Batzuk euskera-tik euskara, beste batzuk euskara-tik euskera eratorri dala diñoe. Nai betera nai bestera izan dala, itz oñein atzizkiak beste itz askotan darabilguzanak eta erderazko « usanza, modo, manera » adierazten dabenak ete-dira? Eta baldin ba'lira, euskal baño euskel ¿obe ez

ete-litzake? Lenengo ta bein ara atzizkia baño bere kide dan era, askozaz be itz geyagotan darabilgu. Bigařen : euskaldun diñoen askok be, « euskeria ta euskeraz » esan daroez. Euskera ala euskara obetsiko ete-dogu? Ez dakit : baña euskera obestekotan, euskel be obetsi beaí geunkela dirudi. Irugařen : Euskerearen batasuna urte askotarako lana dala ; lan onetan, geuk nei geunken baño astiroago ibili beaí izango dogula edonok daki ; baña ořetarako bidea artu ta geldi-geldika auéra joateko asmoa daukagula geure arautegian diñogu. Zein euskelgitarra jo nai dogun ebatzi barik dago ; baña baldin euskelgi ori gipuzkera ba'litz, gipuzkoafak « euskeria ta euskeraz » esaten dabez ; batzuk euskaldun, besteak euskeldun erabili oi dabe. Gure elburutzat euskera dogula, orain euskara obesta ondo ez legoke ; baña euskara obetsi ezik eta gipuzkoaf askok euskeldun esaten daben ezkero senide diran itz biok, aldakuntza barik, leñoan ipiñi ta bide batetik eroatea ez etelitzake zuuřago izango? « Euskera » obestekotan, *euskel* be, euskal baño, obetzat daukat.

¿Zain ala tzain? Irugařen izkin onetzaz zerbait geyago esan nai neuke. Nire ustez, euskera-izpiakeran (fonetikan) l, n, ta r-ren jařai ts ta tz askozaz be egokiago datortz, euskera-mamiago dira, s ta z baño.

Azkenengo batzaldian emen norbaitek esan eban izpiakerea (fonetikea) *ciencia natural* zala ta beste gure lankide batek erantzun eutsan ; bai, *ciencia natural y fisiológica* », Ezetzik ez diñot ; baña, nire aburu txikárez, aboskiňak eurak baño be, onein aztura ta oiturak izpiakeran zerikusi geyago dauke. Gure aboskiňak (organos de la voz) beste gauza asko lez, azi ta ezi daikeguz eta edozein izkuntza ikasten diñardugun bitartean, ezi egiten doguz. Aboskin oneik, euren ezikuntza-aldean, onetariko edo bestetariko oiturak artu daroez eta gero, oitura bařieren jabe egin arte beintzat, abots baterako makuř, beste bate-

rako mukeŕ egoten dira ; baterako efeztasuna, besterako gaiutasuna eukiten dabe. Edozein oitura bere aurka dagon beste oitura bategaz makaldu ta ezabatu egiten dala orok dakigu ; augaitik gaztaroko izkuntza aiztu ez ahen, beste izkuntza bat edo geyago ikasi dabezanak, euren txikitako izkuntzaren izpiakera bereziari askozaz be gitxiago eutsitzen dautse, ugaťean edandakoa bakařik dakien emparauak baňo. Aboskiňen oitura onei sendoago eutsi eta izpiakerek oso ta garbiago dirau ; oitura oneik aldatuago ta izpiakerea be geyago aldatzeko zorian dagoala qnok ukatu daike ?

Beste arlo batzuetan be bai : baňa orain esku artean darabilgun onetan batez be, euskerearen joan-etoŕiaik agirian dagoz : batzuetan etxetik auzora, bestietan auzotik etxera ibili da : etxetik auzora joan dan bakotxean, sasi artetik dabilan ardiak bere artuleak lez, euskereak be bere izpiakerearen agerpen bereziak itxi ta galdu ditu ; auzotik etxerantzean, auzoko izkuntzaren itzak beretzat artu dituanean ostera, auzorantzako ibiltaldian berari egindako irain andi aretzaz zelanhait aspertu nai izan daula dirudi, auzotik artu dituan itz ofei bere izpiakerea ezaŕiaz.

Euskereak auzorantz egindako ibitaldiak, beste askoren artean, urengo doazan itz oneik argiro darakuskuez : Alzaga, Alzibaŕ, Areilza, Epalza, Elzauŕdi, Malzaga, Zumelzu, Minenza, Gelbenzu, Arsuaga, Leŕzundi, Ondaŕza t. a.

Euskerazko Altzaga, Alzibaŕ, etc., idazteko beaŕ dan izkirik, erdereak ez darabil : erdeldunak eta gure arteko jakitunak erdel-erara idatzi ebezan. Gero, ofelan idatzita ikusiaz begiak, entzunaz belařiak, bein eta biřitan esanaz aboskiňak be oitu ziran, eta aspaldi onetan euskeldun askok, erdeldunik onenak beizen efez eta ondo (txaŕto esan nai dot) itz ofeik eta beste ofelako asko auzebagi ta esaten dabez. Itz oneik eta euren antzeko beste

enparauak, euskel-izpiakerearen aurka dagozala zetan esan be ez da. Norbaitek itanduko ba-leust zergaitik euskeldun batzuk « galtzuzuŕ »-en ordez galzuzuŕ eta geyago dana, galtzoŕatz-en ordez galzoŕatz, bultzaka-ren ordez pulzaka idatzi ta esan daben, ofen zegaitia ausaz ementxe dagola erantzungo neuskio : bein aboskiňak one-tara oitu ezkero, galtzoŕatz-en ordez galzoŕats esatea, txorientzat egaz-ibiltea beizen eŕez da.

I. Euskereak erderatik artu dituan itzak, euskeldun erdeltzalien ago ta ezpanetan aldatu ziran ala ez ezin esan daiket; gaurko euskeldun-erdeldunai entzunik, itz asko beintzat ez zirala aldatu dirudit; baňa euskeldun utsakana eldu ziranean, oneik agiňa ezaŕi ta euskerearen-izpiakerea aŕerazo eutsen. L-ren jaŕai egozan s ta z aldatu ta ts, tz egin ebezan : altzau, altzatu, altzaŕa, boltsa (moltsa), kaltza, galtza, galtzagorí, galtzerdi, galtzoŕatz, galtzoin, galtzada, kaltzada, etc...; maltso (mantso), kultsu, pultsu, pultso, pultsera, saltsa, saltsatu, saltzedo t. a.

N-ren uŕengo egozanak, baŕdin : Amantzio, asentsio, asentziňo, antsar, balantza, kontzeju, kontseyu, kontsolau, dantza, dantzari, dontzella, Frantzizko, lantzean bein, lantzeta, mantso, ontza, ontzako, pentsu, pentsau, pentsatu, sentzu (zentzun), trentza, trontza-seŕa, puntziňo, kontzientzi, induljentzi, penitentzi t. a.

R-ren ostekoak, orobat : bertso, bertsolari, Diburtzio (Tiburtzio), gartzela, kartzela, mortzillak, partsoneru, pertsona, Mertzedes, Mertzedeko, tertza, tertzio, tortzidu, zertzeta t. a. Erderaz diarduenan be « por entzima, por puertza ta olakoak esaten dabez.

L, n ta r-ren jaŕai ts ta tz-ren abots oneik euskereak bere-bereak izan ezpa'litu, itz ofein s ta z, aldatu dituan lez, ez ebazan aldatuko.

II. Euskel-itzak be bide onexeri jaŕaitu dautse. Euskal (euskel)-en l au lenago r izan ei-da. Orain esku artean darabilgun auzi onetarako, r-ren aldakuntza izan nai ez izan, aenbaten dala deritxat; baňa bardin ezpa' litz be, aitatuko dodazan itzik geyetan aldakuntza orixe egin da-ta, arira datortz.

L-ren uŕengo : altzi (ari-zi) altzai (ari-zai), athaltzain, athaltzaingo (atari-zain), galtsaratu (gari-saratu), galtsaraldi, galtsarapen, galtzustar, galzuzkur eta galtzuzkur (galzuri) galtzuri, galtxuri, galtzu, galtzuardatz, galtzuondo, galtzondo (Itz bikotxetan « zur »-en ordez zu darabilgu : zume, zumitz, zumintz, zuaitz, zubil, zuil ; augaitik galtzu, gari-zu dala naiko argiro dakusgu) biltzale (biltzalle), saltzale (saltzalle), askaltzale, barazkal-tzale, ebiltzale, philtzar.

N-ren osteam : ardantzale, arántzale, artzaintzakuŕ, burduntzi (buŕuntzi, burduntzali, fuŕuntzale, gantziri, gantzol, gantzolatu, lantzale, lantzar, lantzaro, lantzute, lantzutu, ontzale, seintzain (sentzain), zaintzail, arantzuri, buruntzaki, buruntzi, buruntzigei, eskintsari, ezkontsari, ezkontzoŕ, irentsari, olentzaro, onentzaro, oihantzain, pintzindor, xalantzain, urdantzaki, zaintxuri, zintzil.

R-ren jaŕai : ártzabal, burtzoratu, burtzoro, burtzoraldi, kartsoil, kartzoil (karsoil), kurtzuri (kuru-zuri), kurtsulu, martzal (B-ond.)mazal), pirtzil, zirtzil, zartzaro, bartzun, burtzil, burtzol, burtzoradura, burtzoragáŕi, burtzorokeri, burtzoroki, burtzoratasun, burtzuol, igortzale, igortzeri, ipurtzilo, irurtziri, purtzil, surtzilo.

III. Aditz-jokoan beste onenbeste dakuskegu : qnon zabiltze? or dabiltza; dabiltzanai, dabiltzanean; or ebiltzan; alkaŕen kontra elean zebiltzala : nintzan, zintzan(zan) gintzazan; kartzu (ekartzu), ekartzazu, dakartzun, yatortzuz. Eta itz biren artean be auxe egiten dabe

euskeldun askok, itz biok alkartu ta bat balitzan, esaten dabezanean : « iltzan (il zan) egontzan, alpertziran. Makil ori zuritzeko suan zerbeltzak. » Itz biren arteko aldakuntza oneik idazteari ondo ez deritxot; baña itz baúkuo izpiakerea ezagutzeko, alagalakoak dira. Izkiñak alkaékin ondo lotuta, bizkoír esan edo ez esan, alde anditxua dago : cal-za-da, don-ce-lla, per-so-na (izkiñak azkatuta) erdel-dunik onenak beizen ondo esaten dabezan euskeldun askori, izkin ofeik alkaftuta bizkoír esanazoten ba-yakez, eurak nai ez dabela be, kaltzada, dontzella, persona izango dira ; baña itz birenak baño, itz bakotxaren izkiñak estuago lotu ta bizkoíago esan beaí dirala edonok daki ; augaitik itz biren arteko izpiakera onek, itz baúkuoa zein dan argiro darakus.

IV, Azkenez, Iztegia pizka bat aztertu ezkerro, auxe dokuskegu ; euskel-itzetan l, n ta r-ren jaíai ts ta tz askozaz be ugariago dagozala s ta z baño. Eta au, ez bakaéik azken-aldean : altz, auntz, giltz, oltz, gantz, mintz, ortz, zurtz t. a. ; baita itzen erdiko izkiñetan be. Egiz, Azkue Jaunaren Iztegian itz asko bietara idatzita dagoz ; baña beste askok l, n ta r-ren, jaíai ts, tz bakaéik dauke : augaitik euskel-izpiakeran aitaturiko izki (abots) onein ostean ts ta tz egokiago dagozala deritxat s ta z baño ta beraz, euskaltzain (euskeltzain) euskalzain baño euskera-mamiago dala uste dot.

Orain euskeltzain-buruak bere ikerpenean diñoanari zerbait erantzungo dautsat. Gure mintzai eder onek-diño-onelako gertaldietarako lege bikoitz bat du. Ona bata :edozein muñ-ulketak aldakuntza eskatzen du, baldin agots ulduaren uñengoa aldakizun bada, Erderaz : la supresión de un fonema orgánico exige permutación, siempre que el siguiente al elidido sea permutable. Gure fone-

tika legeetan tz, ts-ren uéngō agotsak, bodega-koak badira, petakako itzultzen dituzte, berak t galduz ; « one-lan, azpeiti, azkoiti, azpe, arizpe t. a.

Itz oneitan eta onelako beste askotan t uldurik, uéngō datozañ b, d, g, geyenez beintzat, p, t, k, egiten dirala egia da ; baña bigaén aldakuntza onen zegaitia, lenengo ulketa ori dala ez deritxat.

Lege oren ordez, atal biko beste lege au idatziko neuke ; Lenengo atala : edozein abotsen ulketak beste abots baten ulketea dakaí, bigaén abots onen zegaitia lenengo abots uldua danean. Erderaz : La supresión de un fonema motiva la supresión de otro, siempre que la presencia del primero en el vocablo haya sido causa del segundo « *Sublata causa, tollitur effectus* » Bizkai-ko efi askotan zabiltz, zabiltzen ordez, zabiz, zabixe esaten doguz : uldu zan I ta tz-ren t be nunbaitera joan zan. Bigaén atala : abots batzen ulketeak, berenez eta beste ezer bitarteko ez dala beintzat, len aitaturiko ulketa ori baño besterik ez dakaí eta aldakuntzaren zegaitia ezin esan daiteke. Beste ulketarik ez dakaí, lenengo atalean aitaturiko abotsak alde batera itxi ezkero, uldu dan abots ori beste enparauen zurkaitz ez dala izan autortzen dogu-ta. Aldakuntzaren zegaitia be ezin izan daiteke. Uldu dan abotsa itzean ez dago : ez dagoan tokian ezertxu be ez da ; baña ezerezak, berez, zerbañ dan gauzarik ezin daike eta aldakuntzea zerbañ da. Erderaz : la supresión de un fonema no provoca directamente ninguna otra supresión (fuera de la mencionada en la primera parte) ni es por sí misma causa de permutación alguna. No provoca ninguna otra supresión, porque, en este supuesto, los demás fonemas en nada dependen de él. Tampoco puede ser causa de permutación, porque no formando ya parte del vocablo, su influencia en él es nula ; la influencia de lo no existente, de la nada ; pero la nada no puede ser causa de nada

positivo, como es una permutación<sup>1</sup>. Áfantzale, sēntzain esaten doguz; lenengo atalaren i uldu da; bigaén ataleko z be tz egin da, aldatu da; baña aldakuntza onen zegaitia ez da i-ren ulketa ori, bertan diraun *n* baño. Balanza, danza, lanza, manso, onza ta beste askok ez dabe izan i-ren ulketarik ; baña euskeldunen ago-ezpanetan balantzta, dantzta, lantzta, mantso, ontza egin dira.

Dana dala, euskalzain nai euskaltzain-ekin lege onek zer-ikusirik ez dauko. Onen legea-diño-Azkue Jaunak beste au degu. Aldakuntza batek eztu aldatzen uřengo agotsa au aldakizun izan ařen. Erderaz : Una permutación no exige otra, aunque el fonema contiguo sea capaz de ser permutado ». Lege au zeatza ete-da? Nire eretxi labuřean, ez. Bestera ba'lego : aldakuntza batek uřengo abotsa aldatzen du, au aldakizun izan ezkerro ; onelan ba'lego be, zeatza ez litzake izango, eřena baño. Erderaz : una permutación no exige otra, aunque etc; esta ley, a mi ver, no es exacta : altzain, athaltzain, galtzuztar, galtsaraldi etc dan testimonio de ello. Si en vez de « no exige » dijera lo contrario, sería también inexacta; abelburu, abelgoři, elgoři, *euskaldun* etc proclaman sn inexactitud.

Aldakuntza batek uřengo abotsa aldatzen ete-dau? Aldakuntzaren ostean, batzuetan uřengo abotsa aldatzen da; beste batzuetan, ez. Zergaitik ori? Bigaén aldakuntzearen zegaitia lenengo ori *berez* ez dalako aldakuntza onetatik datořen abots bařia baño. Abots au, bere uřengo ezartzen yakonaz aizkide danean, bigaén aldakuntzarik ez dago; baña beragaz batu ta lotu nai dogun abotsa, bere lagun izan ezik, lagun ori idoroteko bigaén

1. Abotsen bat kentzen danean, igedin bi auřez-auř saři aurkitzen dira. Alkař jote au dala-ta, bai, bein baño sařiago lenengo ige-diňa uldu ta bigaéna gogořtu egiten dira; baña onetzaz beste bein zerbait diňokegu.

aldakuntza egiten dau. Erderaz : Tras una permutación a veces, viene otra segunda; a veces, no. La razón de esto está en que la segunda permutación no depende precisamente de que haya precedido otra, sino de la naturaleza del fonema, término de la permutación. Cuando este fonema simpatiza con el que le queremos agregar, no hay segunda permutación; pero si el fonema con el cual ha de juntarse, le es antipático, generalmente suele permutarlo.

Augaitik esan dot auérago euskaldun-en l ori r-ren aldakuntza izan nai ez izan, esku artean darabilgun auzi onetarako aenbatzen dala. L onen abotsa, r-ren aldakuntza izan nai ez izan, bardin-bardiña da; abotsa bardiña izan ezkerro, aboskiñen gerkun eta igikunak be, r-ren aldakuntza danean eta ez danean, bardiñak izan beaí; baña gerkun eta igikun bardiñak, ondore bardiña dakaíe.

L ta n *bodega*-ko igedinakin aizkide baíuko dira; bein baño saíago *petaka*-ko p, t, k, bedega-ko b, d, g, egiten dabez; onelan, abelburu, abelgoíri ta enparau geyenok lenengo aldakunza bai, baña bigaénenik ez dauke; bigaénen aldakuntzau abelpuru, abelgoíri etc, egin ba'litz, benetan gauza aíigafia izango zan !

L, n ta r *bodegaren* igedin oíeikin lez,s ta z-gaz aizkide ba-lira, zer esanik ez legoike; baña auérago aitatu dodazan itzak (erderatikoak ez euskerearenak) l, n ta r batetik eta s ta z bestetik euskel-izpiakeran aizkide ez dirala argiro darakuskue : augaitik, Azkue Jaunak beste zerbait erabilan bere buruan, ufengo itz oneik idatzi ebazanean : Eriak euskaltzain, euskaltzale esango balu, euskaltun, euskalkaitz, euskalkaizto erabiliko liluke.

« Aipaturiko gertakari orientan befogei ta bat dauzkagu euskalzain aldekoak : euskaltzain-arenak lau bazik ez ; geyenez bost ». — Nire ustez aitatzen dozuzan itz oíeitistik arira datozañak, onexek bakafik dira : abelzain,

zamalzain, alzai athalzain, atalzakur, athal-zapata, galzoří, galzuri, galzikin, galzuzkur eta euskalzale; baña zeure Iztegian bertan *be*, alzain eta altzain, altzaingo; athalzain eta athaltzain; galzuri ta galtzuri, galtxuri; galzikin eta galtxikin, galtxizkin; galzuzkuř eta galtzuzkuř dakustaz; atal-zakuř eta atal-zapata, itz bakařa egi-teko eran ez dira alkařekin batu (son voces formadas por yuxtaposición, no por composición). Euskalzain-en aldekoak ¿zenbat gelditzen dira, ba? Lau : abelzain, zamalzain, galzoří, euskalzale. Eta lau itz oneik *be*, eřiak ořelan esaten ele-ditu? Gure eřitařen batzuk-edo-batzuk ořelan esatea ta eřirik geyenak ořelan esatea, gauza bi dira. Eta atal bi ořeikin itz bakařa egin eta itz bakařa lez esan ala ez esan *be*, nire ustez, ez da bardin : sagarbila, dirubila esaten dogun lez, ardao-zale, mamin-zale, kuzkuzale *be*, alkařen jařai bai, baña alkařekin ondo lotu harik, erdiko gelunetxuaz, saři entzun ditut. Euskalzale eřiari ez dautsat iňoz entzun; euskeltzale, bez. Euskalzale esaten ei-dau. Ez diňot ezetz; baña eřiak landuriko itza baño (mas que palabra trabajada por el pueblo) iňok eřiari irakatsitako itza geyago dirudi. Dana dala, eřiak itz ořeik ořelan esaten dituala egia ba'litz *be*, euskaltzain (euskeltzain)-en alde dagozanak, geyago dira.

---

§ V

## IRUGAŘEN TXOSTENA<sup>1</sup>

(EUSKALTZAIN BERAK BATZAŘ BERTAN EGINDAKOA)

Euskal-izpiakeran s ta z'ren jařai p, t, k, egokiago dirala dirudi b, d, g, baño. Egiz s ta z'ren jařai datořtan

1. Ikus gorago : Oař batzuk geigařitzař, 3 gařen oařa.

b d ta g, itz askotxutan aldatzeka dakustaz ; baña abots ořeik gogořtzea darakuskuezan itz ořik diran baño askozaz geyago ba'lira be, izpiakera-lege onen auřka aitatu be ezin leikezala deritxat. S ta z'k sořtu daroen aldakuntza ořek, euskaldunen aboskiňak alde ořetara itzuli ta makuř dagozala darakusku : makurtasun au aizuna dala adierazteko, abots oneik aldatzeka darakuskuezan itzak ez dira aski : makurtasun ori aizuntzat euki al-izateko, beste ainbeste aldakuntza zeiheř beařezkoak izango geunkez ; baña bestetara, iruntzietara egindako aldakuntzarik ez dazaut : augaitik, atsařean aitatu dodan izpiakera-lege ori zuzena dala uste dot.

B, d (ta) g, sařitan p. t, k, egiten dirala orok autořtzen dogu ; baña aldakuntza onen zegaitia qnun ete-dago ? qzein ete-da ? Batzuk, itzaren lenengo atalak galdu daun igidiňen baten galtze ori, aldakuntza onen zegaitia dala uste dabe ; beste batzuk, igidiňaren ulketa ori barik, itzean dirauen s ta z dirala diňoe. Bigařen oneik zuzenago dabiltzala deritxat. Eta ziňez, ultze ori aldakuntzaren zegaitia ba'litz, izkirik galdu ez daben itzetan aldakuntzarik be ez legoke ; baña ultze barik be, s ta z'ren jařai aldakuntza ori auřez egiten da : augaitik onen zegaitia, izkiren bat galdu daben itzetan be, itzean dirauen s ta z dirala zuzen ziňetsi daikegu.

Ona emen aldakuntza ořeik (aldatzen diran abots ořein buruz-buru :)

B gogořtu ta p egiten da : azpařen, azparne, azpedař, aspizař, azpuru, aizpuru, azpeiti, auspo, auspuruko, aizpe, aspe, axpe, arizpe, eragozpide, erispide, gaizpera, irisipide, izpide, izpasteř, mäspatze, ořzpiko, ozpiko, ozpera, ozpil t. a. Aitaturiko itz onein lenengo atalean igidiňen bat uldu da : uřengo oneik igidiňik ez dabe galdu ; batzuk gediňik bez : aozpez, auspez, asperapen, asperen, aspide, auspaztu, ausperkatu, azpařu, azpegi, azpero, azpigun,

azpel, azpil, buruzpide, egaztun (eraztun) egoskaitz, egoskogoír, egospera, eleizpe, elizpe, irabazpide, noizpait, noizpaiko, sinispera, solaspide; ezpa-daki, ezpa-neranbil, ezpegi uste, ezpekizu belutu.

Lopide, luzapide, supazteír, zuíupera, ta onein antzekoak be entzuten dira.

T' ri buruz : akaztun, amezi (toi, tui), aizto, aitzuí, astui, arizti, aztun, bioztun, izardun, irakastun, kirastun, lakaztun, lokazti, mästi (toi, tui), oztun, oztura, saasti, uíuztoi, zuarizti. Igidiñaren ulketa barik : astun (aztun), aztal, aztul (estul), beaztun, eliztei (dei), erostun, erostura, ihestun, jolastun, jostun, ikastun, orestun (oreisto), poztun, salerostun, solaztun : eztaki, eztakaí, eztabil, etc...

R' ri buruz : aizkora, azkoiti, ameskaitz, afaskori, auskaldaí, auskaldeír, azkura, azkaineko, azkarate, azkain, azkarai, azkue, azkordin, azkurdin, azkale (hazkile), era-gozkaí, ikaskin, ilemozkin, ilemozkintza, inkhaskin, ozkarbi, ozkura, perzkin, parzkile, saskaí, saskei, txoíoskile, zoíoskila. Igidiñaren ulketa barik : -azkero, ezkero, áiazkero, ázkaí, azkaíeko, azkaí, azkari, azkaí, apezko (go), argizkoí, askai, askei, auzkin, auzkora, azkoí, barauskaí (baruseaí), bizkailu, buru-auskaí, buruzkain, buruzkaindi (ka), buruskan, buruzkanka, deuskai, eroskila, eskai, ezkai, ezkaitz, goiskiro, goizkoí, ikaskura, ikuskura, joskin, joskila, irazkai (kei), phizkaú, gurbizkaran : ezkatoíz, ezkabiltz, ezkara, ezkeunke, ezkiñake, ezkoaz.

Iru abots oneik s ta z' ren ostean be, aldatzeka bein baño saíago gelditzen dirala esan dot eta egia da. Begira ezpabe :

b. aozbarna, aozbera, aozgora, asbage, asbeherapenti, asbera, asberatu, hasbero, hasbefi, asbide, hasburu, asgabe, asgiro, ausbero, ausbizi; buluzgoí, buru-ausgaí, buruzbide, buruzgain, buruzgan, buruzgainless, egosbera,

egosgogoí, egosbigun, egoskaitz, herosdun, gaizbide, jausbide, ikasbide, ikasgura, inkhasgei, irabazbide, irresbide, irunsbide, ozbera, ozberatasun, ozberatu, ozbero, t. a.  
d. astagaizdun, biozdun.

g. ahantzazarazgaí, ahantzgaí, ázgaí, afatsgoí, goizgoí, auzbaréna, auzgora, hasgai, azgale, azganeko, azgaí, azgura, azguren, azgatx, beraxgura, biozgaí, biozgabetasun, biozgabekeri, gurbizgoí, jausgaí, zimizgai, zumizgai.

§ VI

## J'REN OTSA ETA IDAZKERA

(PIERRE BROUSSAIN ZAÑAK (G. B.) 1920<sup>ko</sup> EPAÍLA'REN 24<sup>eko</sup>  
BATZAREAN EGINDAKO IKERPENA<sup>1)</sup>)

Orain arte euskeraz idatzi duten hasburuek (los autores) eta bermoleginek (los periodistas) j eta y erabili dituzte lau ots agertzeko : i, j pantsesa ,d, eta j española, eta ba'dire oraindik asko euskaltzale eta euskalterle (báskólogos) zonbait era ori auéra juan-erazi nahi luketenak. Ene aburua, hofi aitzikoa (aitziko=contrario, opuesto) delakotz, Euskaltzaindi'ko bazkideei nire zioak zoin diren esateko baimena eskatzen diet.

Arau bi ba'dire ludi guzikoz mintzafterleen (linguistas, filólogos) artean : Lenengoa : Ots bakoitzak bearí duela idatz-agergailu (representación gráfica) bat, eta idatz-agergailu ori beti berdiña.

Bigaérena : Idatz-agergailu bakoitzak ez duela ots bat baizik agertu behar.

Laburtzeko esan daiteke : ots bezenbat idatz-agergailu, idatz-agergailu bezenbat ots.

1. Ikus EUSKERA' ren I<sup>ko</sup> Atala, 68 gaíen orían.

Bi arau auei auŕka ibiliz, guk, euskaltzainok, mintzaiterle guztien gaitzespena bilduko genduke eta gainera gure euskera maitearen « ortografiari » bere kardentasuna, bere argitasuna kenduko genioke.

Una zer aŕepintzen (proponer) dizutedan :

Ikusiz oraingo idazle geienek j egarten (hacer uso) dutela, j ori edukiren (edukiko) nuke, dan bezela, Bizkaitaŕen eta Ziberotaŕen j frantsesa agertzeko, eta aldagailu arin batekin Bizkaitar zonbeiten, Nafartaŕen, Benafartaŕen eta Lapurtaŕen d adi-erazteko.

Gipuzkoafen *jota* agertzeko jh edo hj erabil al litake.

J'ren atzean ala auŕean h dazart (ezartzen det, ipintzein det) erakusteko ots ori gogor eta latz dela, eztaŕi edo zintzuŕetik irtetzen dela.

Mintzadar (dialecto) edo izkelgi guzietan erabiltzen dan itz au : *jan*, unela idatziko nuke :

yan (mingatuz (mingatu-pronunciar) : ian) Bizkaitar zonbeitentzat.

jan (mingatuz gutxi gora-bera Frantsesek lez) Bizkaitar zonbeitentzat eta Ziberotafentzat.

jhan ala hjan (mingatuz : Espaňolen *jota*) Gipuzkoarentzat.

jan ala jan (mingatuz : d, d bustia) Bizkaitar zonbeitentzat, Nafarlar, Benafarlar eta Lapurtaŕentzat.

xan (mingatuz : x edo s) Nafarroako Eŕonkaritar, Saraitzutar eta Aezkoafentzat.

Gerta daiteke neure euskaltzain lagunek auxe esango didatela :

« Sortu edo irazan (crear) nahi degun izkera bakunduan, elertizko (literario) euskeran, itz bera beti bearko degu era edo modu beraz mingatu. Jan beti berdin min-

gatuko degu, nahiz Bizkaitárek bezela, nahiz Gipuzkoárek edo Lapurtaárek lez. Gero ikusiko.

« Elertizko mintzaia guzietan itzek beti mingapen (pronunciación) bera daukate. »

Benatz (objeción) honi erantzungo diot auxe :

Gure arloa ez da bakaárik datoén izkera bakunduaren bexinedua (ortografía) egitea. Guri dago berdin oraingo izkelgi guztien bexineduaren autatzea. Ofengatik gure azken batzaldian erabaki degu nola idatzi beaí diran Ziberotaáren ü eta Eñonkaritaáren suduétikato ots batzu, zí, áô, eta abaí.

Egingei degun elertizko euskeraz bezenbatean, ontzat artzen det eta zinez itz bakotxa beti era beran mingatua izan dedin. *Jan* beti berdin idatziko eta esango da.

Euskaltzaindiak erabakiren (erabakiko) duen eraz, eta nik euskaltzainen geiengoaren iritziari pozik amor emanen (emango) diot.

Bainan, y, j, j, eta jh auetatik ots bakar bat edukiren ote degu gure elertizko euskeran ? Ez dirudit ondo lita-kela.

Izkera batek ots geiago, eta aberatsago.

Ots geiago, eta « fonetika » ederágo.

Gipuzkoáfen *jota* lekot (salvo, fuera de) nahi nuke beste ots guziak eduk ditzagun. *Jota* ori euskaltzale askori etzaie gano (no les agrada), lehenik belaírako bigun ez delakotz eta bigafen sortu edo jaio bería delakotz Gipuzkoako izkelgian. Nabaro (notorio) da ez dela, y eta j, bezin zahára ; eta ots auen guztien ituria *i* zela.

Nire aburupena litake j batekin asten diran itz geienak, hala nola : jan, jaun, josi, jo, joko, juan, eta abaí... mingatu eta idatzi beaí genituzkela j izkiaren gaiñean edargailu txiki bat jaíz, Lapurtaárek eta Napartaárek orain mingatzen duten lez.

Bizkai ta Zibero'n bakařik entzuten diren itz batzuri utziko ginoike orain daukaten j frantsesa, mingapenez ta « ortografiaz » unela ipiñiz : jagi, jai, jaibal (B) enjogi, ejer, jin (S).

Bertze itz bazuetan ondo liteke asierako i' ren otsa edukitza, ots ori y' rekin agertuz, hala nola : yagon, yagola, yaramon, yaraunsi (B, arc).

Aski liteke ogei bat itzetan j prantsesa edukitza eta beste ogeitan Bizkai'ko i edo y.

Ófela bi ots auek ez genituzke galtzerat utziko egin-kizun degun elertizko euskeran.

D<sup>r</sup> BROUSSAIN,  
Azpaíe'n egina Epailaren II' an 1920.

---

S VII

## LE SON ET L'ORTHOGRAPHE DU J

(PIERRE BROUSSAIN ZANAK (G. B.) URTE BÉRAKO IORAILAREN 25<sup>mo</sup>

BATZÁRERA BIALDU ZUAN IKERPENA<sup>1)</sup>)

J'estime que la langue littéraire unifiée que nous vous proposons de créer doit être une synthèse de toutes les richesses de l'euskera, richesse de syntaxe, richesse de suffixes et richesse phonétique. Dans les milliers de mots que nous aurons à créer pour faire de l'euskera une langue civilisatrice nous devrons faire entrer toutes les racines et tous les suffixes des divers dialectes, ainsi que tous les sons de ces mêmes dialectes, de manière à ne rien laisser perdre des ressources de notre langue ancestrale.

Jé ne parle, bien entendu, que des mots à créer. Dans

1. Ikus EUSKERA'ren I<sup>ko</sup> Atala, 70 gaíen oían.

les mots actuellement en usage que l'Académie choisira pour la langue unifiée, qu'ils soient pris dans un seul dialecte ou dans deux, on conservera naturellement leurs formes actuelles.

Mais, je voudrais qu'on conserve tous les suffixes, les suffixes « gaz » (*B*) et « tarzun » (*S*) par exemple.

Qu'est-ce qui nous empêcherait, dans quelques-uns des mots que nous aurions à créer, de les former avec le suffixe « tarzun » au lieu de « tasun » ?

Qu'est-ce qui nous empêcherait d'enseigner dans la grammaire future de l'Académie que « neugaz » peut s'employer comme synonyme de « enekin » ou « nerekim » ? De cette façon, le suffixe « gaz » ne serait-il employé qu'avec « neu », qu'il serait sauvé de la destruction.

De même pour la phonétique.

Je suis d'avis que dans l'immense majorité des mots actuellement usités et commençant par *j*, ce *j* soit prononcé comme un *d* mouillé (le *d* mouillé du *AN.*, *L.*, *BN.* et certains *B.*).

Mais je voudrais (et j'y tiens énormément) que dans les mots que la langue unifiée sera obligée d'emprunter au *B.* et au *S.*, lorsqu'elle n'en trouvera pas de correspondants en *S.* et en *L.*, ou que même dans quelques-uns des mots nouveaux que nous aurons à créer, nous conservions la prononciation du *j* biscayen-souletin, son qui n'est pas emprunté à une langue étrangère et est nettement euskarien.

De même, je voudrais que dans un très petit nombre de mots (5 ou 6 par exemple) on conserve le son de l'ü souletin et bas-navarrais oriental.

Ainsi l'Académie adopterait le mot souletin « atün » = expérience, et lui conserverait le son ü, pour ne pas le confondre avec le mot « atun » = thon. De même nous pourrions accepter le mot souletin « ügatz » =

gypaète, avec son *ü*, pour le différencier du mot biscayen « ugatz » = mamelle.

Je sais l'objection que plusieurs de nos collègues me feront. Cette objection la voici :

« L'Académie ne veut pas faire disparaître les dialectes locaux, et avec les dialectes locaux survivront leurs sons spéciaux, *j* biscayen et souletin, *ü* souletin, etc... « Il est donc inutile que dans la langue littéraire unifiée on conserve tous les sons de l'euskera. »

C'est fort bien ! Mais, si les dialectes locaux disparaissent, que deviendront les racines, les suffixes et les sons spéciaux à ces dialectes ? Ils disparaîtront aussi, et l'euskera restera appauvri.

Il faut, en effet, envisager la disparition des dialectes locaux, comme une chose fatale, dans plusieurs siècles.

L'avenir de l'euskera peut être soumis à deux hypothèses, et à deux seulement.

*1<sup>re</sup> hypothèse.* — L'euskera actuel, avec tous ses dialectes, restera un patois, c'est-à-dire la langue des pêcheurs et des paysans, et continuera son mouvement de recul devant le castillan et le français, jusqu'à ce qu'il disparaîsse complètement, dans deux, trois ou quatre siècles d'ici.

S'il doit en être ainsi, l'Académie Basque peut se dis-soudre, puisque son objectif est le maintien de notre langue ancestrale. Si, en effet, on considère l'euskera simplement comme une curiosité linguistique, point n'est besoin d'une Académie Basque pour l'étudier scientifiquement.

Des savants étrangers, comme Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Uhlenbeck et ceux qui viendront à leur suite, ont été, sont et seront beaucoup plus qualifiés que des Académiciens Basques pour se livrer à l'étude scientifique de l'euskera.

*2<sup>e</sup> hypothèse.* — L'Académie Basque, fermement résolue à faire de l'euskera une langue nationale parlée par toutes les classes sociales du Pays Basque, réussira à constituer une langue littéraire unifiée, une langue de civilisation, qui, grâce aux écoles et aux collèges, deviendra, au bout de deux ou trois générations, la langue commune de tous les Basques.

Et alors, il se passera au Pays Basque ce qui s'est passé dans toute l'Europe. Dans plusieurs siècles, les dialectes locaux, les parlers locaux, disparaîtront devant le basque unifié devenu langue civilisatrice, c'est-à-dire langue de la bourgeoisie, langue du clergé, langue de l'enseignement et peut-être..... langue officielle !

De toutes façons donc les dialectes locaux sont fatalement destinés à disparaître dans plusieurs siècles.

Ou ils disparaîtront devant le castillan et le français, ou ils disparaîtront devant le basque unifié constitué par l'Académie.

Ma conclusion est que le basque unifié doit être un musée dont les collections seront empruntées en immense majorité à un ou à deux dialectes, mais qui comprendra aussi des échantillons empruntés à tous les dialectes et sous-dialectes.

Un dernier mot sur l'orthographe des divers sons représentés actuellement par *j*.

Je ne suis pas d'avis qu'on emploie *y* pour représenter le *d* mouillé, parce que *y*, étant une voyelle, ne peut servir à représenter la consonne *d* tildée. Je propose : *j* ou *j* tildés.

Toutefois, si l'Académie décide d'adopter *y*, il faudrait modifier cette lettre en la surmontant d'un signe spécial, et on donnerait à *y* initial le son de *i*.

Par exemple :

yaramon (*B*) (iaramon).

yaun (*L*) [y tildé].

jai (*B*) (*j* français).

jei (*S*) —

Quant à la jota guipuzcoane, je ne suis pas d'avis de la conserver dans l'euskera unifié pour les deux raisons que je vous ai déjà données.

1° C'est un son guttural, désagréable à entendre ;

2° C'est un son relativement récent dans la langue basque et une altération de *i* (comme cela s'est produit dans la langue espagnole au quatorzième ou quinzième siècle, et comme cela s'est produit dans le patois charentais, en France, où le mot « *joli* » se prononce avec la jota espagnole).

Néanmoins, si l'Académie décide de conserver la jota espagnole dans quelques mots de la langue unifiée, je propose qu'on représente ce son par : *jh* ou *hj*.

---

§ VIII

## EUSKALKI ALA EUSKALGI ?

(EGUZKITZA YAUNAK BATZAR BERTAN EGINDAKO IKERPENA)

Euskalzain baño euskaltzain egokiago zala adierazteko asmoz, auferagoko txostenean izpiakera-lege auxe auíkeztu ta aztertu neban : « l, n ta r' ren jaíai ts ta tz ego-kiago dagoz, euskera-mamiago dira s ta z baño. » Iru abots oífeitatik lenengoak (l'k) s ta z aldaturik, ts ta tz egiten dituala erakutsi ezkerro, neure asmo oíri buruz beste eginbeaírik ez neukan eta beste abots bjak uírengo baterako itxi neikezala edonok dakus : baña abots oírek banakatzeari ez neutsan ondo eretxi. Eta egiz, aitaturiko

iru abots ořeik, euren uřengo datořtan s ta z'ri aldakuntza bardiňa ařerazten dautse; lege baten azpian dabiltz eta, au onelan izanik, irurak alkařen jařai, bananduta baňo, obeto egozala dirudi.

Oraingo txosten onetan abots ořien beste izpiakera-lege bat azaldu nai neuke; baňa irugařen abotsak beste biai aguř-egiten dautsela uste dot; bere bidean zeař bakařik doala deritxat eta, augaitik, irurak batera, lege bakařaren azpian ezin saftu neikez.

L ta n'k, euren jařai datořtan p, t, k, sařitan bigundu ta b, d, g, egiten dabez : R'k bigundu iňoz bez, edo guztiz gitxitan : gogořtu, ostera, iňok uste daun baňo sařiago. Aldakuntza oneik bana-banan eta bigařen izki onein buruz-buru, ikusi daiguzan.

I. P`gutziz gitxitan aldatu doa : nik beintzat, abots onen aldakuntza gitxi batzuk baňo ez ditut idoro : ai-solbe, axolbe, estalbe, iňunbe itzalbe *denbora txinbart*. — Pe atzizkia-be-ren aldakuntza ete-da beti? — Askok ori uste dabe; baňa batzuetan beintzat, ikuřpen bařdiňa ez daukela dirudi ta atzizki bi ete-diran susmoa daukat. Basabe, Mendibe ta Uribe'ren « be » ořek eta egape, eskupe ta sasipe'ren « pe » onek, gauza bi adierazten dauskue-zala-ta nago; baňa dana-dala onako-pe au arako-be'ren aldakuntza baňo ezpa-litz be atzizki onek, aizolbe, axolbe estalbe ta saranbe ořeitan daukan ikuřpenagaz, l, n auřetik euki ezik, beti-pe erabilten dogula oařtu bedi.

II. T askozaz be geyagotan aldatzen da. Ona emen : ta=da : tař, tiař=dař, diař : tari, tasun, laun=dari, dasun, daun egiten dira.

Primero : Il da gero : ildakoaren, izandakoaren, egin-dakoan ; emen egon da gero, jan da otz : aitapondako, menda.

Segundo : Apaldaŕ, bazkalfaŕ, bazkaldiaŕ, gosaldaŕ, ergoyendaŕ, isŕaeldaŕ, mahaindaŕ, sukaldiaŕ.

Tercero : Aintzindari, aitzindari, altzindari, asaldari, astindari, auŕendari, bafandari, danbolindari, gibeldari, ibildari, lakondari, sukaldari, zaplandari, uŕundari, ondasun, ibildaun.

Te=de : tegi=degi : helde, eldekoŕi, eskinde, igande, hilde iraulde, (den), mendekoste, ponde, uŕinde. Segundo : agindegı, bustindegı, laŕazabaldegı, oxindegı, aitzindegı, aintzindegı, arakindegı, arandegı, ardandegı, aŕaindegı, asundegı, bafendegı, eskindegı, eundegı, ezpaldegi, gaztandegı, hildegı, ilagindegı, illemozkindegı, irindegı, irundegı, iskindegı, laŕuaphaindegı, mindegı, moŕoindegi, okindegı, presondegı, urbildegi, urdandegı, zaindegı, zergabildegı.

Ti=di : tik=dik : andi, iŕendi, hilindi, zirindi : andik, andio, andiko ; emendik, emendio, emendiko ; gaindi, gandi, gandik ; lendik, lendandik, lendatzandik ; nondik, nundik, txikitandik.

To=do : abendo, ondo, sendo (to) uheldo, zaindoki, zeŕaldo, ziŕindola : Beriz enendoŕke Aramayo kontrara.

Tu=du : abendu, aitazaindutasun, mendu, merezimendu, saindu, sainda, sandu, zimendu. Eŕonkalfaŕ eta zuberotaŕak, saŕitan ez ; baňa beste euskaldun enparauok, aditz eŕatoŕiak egiteko darabilgun-tu atzizkiaren t ori, auŕez aldatzen dogu.

L'ren ostean : abaildu (abaldu, afaldu, apaldu), amildu, angeldu, argaldu, arildu, aŕaíldu, aŕakaldu, asaldu, askaldu, aspeldu, auldu, azpildu : bealdu, bialdu, bidaldu, bildu, biphildu, biribildu ; epeldu, erabildu, herbaíldu, erbaldu, erdoíldu, ergeldu, heŕenbeldu, ezpaldu ; gibeldu, goibeldu, gosaldu, gurbildu ; jabaldu, indikildu, iñuldu, irabildu, iraldu, ixildu, ixtildu, itzaldu ; karkaildu, karsoildu, kaskaildu, kaskaldu, kikildu, kimildu, kiribildu,

kirimildu, kírikildu, kiskaildu, kiskaldu, kiskildu, kozkildu, kubildu, kukuldu, kurkuildu; makaldu, marduldu, marguldu, masaldu, maskaldu, mazkaldu, maskildu, mazpildu, moskildu, moteldu, murgildu, muskildu, muskuldu, mutildu, mutuldu; hobieldu, hobildu, odoldu, oihaldu, oildu, okildu, óldu, opildu, orapildu, ospeldu, ozkaildu, ozkildu; pipildu, pizkoildu, pirtsildu, pispildu; saildu, sakaildu, samildu, sealdu, sandaldu, sisplidu, soildu, suskuldu; xabaldu, xakaildu, ximaldu, ximeldu, xipildu, xixkaildu, xispildu, xotildu, xurpaildu; tartaildu, trepeldu, txepeldu, tximaldu, tximeldu, tximildu, txokoldu, txarabildu, txorobildu, txukuldu, txuzkuldu; ubeldu, ueldu, ugaldu, uieldu, uldu, umeldu, urbildu, urkeldu, urkildu, urkuldu, uríkaldu, uxaldu, uxeldu, uskaldu, uspeldu, usteldu, uxuldu, hutsaldu, uzkaldu; zakaildu, zakildu, zarbaildu, zarbeldu, zargaildu, zarkuldu, zarpaildu, zarpildu, zerbeldu, zeñepeldu, zeñelsu, zildu, zimeldu, zimildu, zipildu, zirpildu, zirtzildu, zitaldu, zizkaldu, zoldu, zubildu, zurbildu, zuñunbildu, zuzpildu.

N'ren jañai : abaindu, agindu, aintzindu, alargundu, albaindu, albandu, aldendu, aldondu, arbindu, arindu, armindu, astindu, azkendu, azundu; bakandu, banandu, bardindu, batzaindu, batzandu, berandu, berendu, berandu, bigundu, bikhundu, biñandu, biñindu; ebaindu, edendu, egañmindu, eradendu, erandu, erdikindu, eskaindu, etzindu, eundu, ezaindu; gallendu, gebendu, gehiendu, geundu, girbindu, gizendu, gohaindu, gurentru; jakandu, jaundu, iguindu, ilhaundu, illundu, hiragundu, iraindu, irazkindu, irendu, irindu, irundu, ixundu, itandu, itundu, itzindu, itzundu; kadendu, karmindu, kemendu, kimindu, kikindu, kokendu; labandu, lagundu, lakaindu, lakandu, lañaindu, lañindu, lerendu, lerindu, leundu, leusindu, lirindu, lizundu, loisindu,

loisindau, lořindu; mamindu, miřindu, mořoindu, moskindu, muskindu; ondu, ohoindu, orbaindu, orbandu, ordaindu, ordendu, oskindu; otzandu, ozerrdu, ozmindu, ožpindu; pinpírindu, pupirindu; sakondu, samindu, sarkindu, somindu, sopindu, sorpindu, sotořoindu, su-mindu, surmindu; xikindu, xilindu, xopindu, xuxendu; tartaindu, txikindu, txolindu, urdindu, urgundu, ur-mindu, uřandu, uřendu, uřindu, uřfundu, usaindu, urzindu, usandu, uxindu, utzundu; zaindu, zarbindu, zedendu, zekendu, zertzendu, zezendu, zikindu, zirindu, zirthoindu, zordundu, zugirindu, zuiřindu, zurmindu, zuřindu, zuřuindu, zutindu, zuzendu.

III. Ka=gā : kari=gāri : kař=gař, egin oi dira : hailgako, hailgatu, arilgatu, arin-aringa, ařenga, besanga, estulga, firlingatu, kořonga, muxinga, palanga, priztinga, sabunga, zainga, sardanga, tangada, tilinga, tranga, trongada, txifinga, txiřingola, txopinga, uxinga, zabunga, zanga, ziringa. Segundo : aringari, gabongari, saingari, zuřungari. Tercero : elgař, mingař.

Segundo : Be=ge, keta=geta, keri=geri : ahalge, ahalgetu, ahalgekoř ; hailgeta, arilgeta, azalgeta ; main-geri, zaplanderi.

Tercero : Ko=go : koř=goř : hailgo, arilgo, ango, emengo, alango, auřerengo, atzerengo, auřenengo, azkenengo, banengo, binengo, irunengo, launengo, aza-zango, babazango, bardingo, beingo, beingotz, bera-gango, beregango, bestelango, bururengo, eguneando, gehiengo, gerorendo, gayengo, gořingo, lango, lelengo, lenengo, maingu, maingutasun, maizango, oňengo, ointsuengo, olango, onango, ondorendo, orařiengo, oraingo, osterengo, potingo, potxingo, potxongo, sabelerengo, xu-ringa, tilingo, uřengo, urteango, zango, zelango, zungo, zuringo, bardingote. Segundo : ahalgoř, mingoř, malgoř.

Cuarto : Ki=gi : kunde=gunde : estalgi (lasto-estalgi, buruestalgi, oatz-estalgi, ohoin-estalgi, uztaí-estalgi) esangi, ipangi, iraulgi, mingi, odolgi ongi (ongialdi, ongiiena, ongiegile, ongiegi, ongietorí, onginai), ozengi, tingi, ungi=ongunde.

B'k, lenengo ta bein, beste abots biok egiten dabezan aldakuntza oíeik ez dagiz. Lenen idoro dodazan itz gitxi batzuk bakaíik aitatuko dodaz : agurtu, haidortu, ayeítu, aitoítu, akeítu, alkeítu, aspeítu, axteítu, atxuítu, antorútu, azkorútu, bioítu, bizkorútu, makuítu, mukeítu ta a. : agoítasun, agoíte, agoílegi, aidoítasun, azkaítasun, azkoítasun, bakaítasun, bizkoítasun; bakaíti, balduíti, bilduíti, oítik; agurka, apurka; aiherdoí, bilduíkoí; auíkeri, aidofkeri, aspeíkeri, asperkunde t. a.

Bigaíengo, bigunak gogoítu be, saítan egiten ditu. Ona emen : arkazte, agerkai, auíkintza, árkaitz, árkaizto, aspeíkallu, atxuíkintza, biuíkai, egurkin, eguíkintza, erkain, erkhaitz, eíkihen, érkohen, erkoídin, ihaurkei, uíkaraun, burpide, gurpide, burpil, gurpil, berpatu, berpertan, berpera, berpertatik, berpetan, *aorpegi*, *auípegi*, erpuru, erpuruko, etoípari, etoípide, erpe, auítanik, ertun.

Norbaitek erantzun dagiket : I ta n'ren osteko aldakuntza ori darakusen itzak bildu dozuz : baña ainbakorik ñez ete-dago? Bai dagoz eta auífez. Guztiak emen aitatzea arlo luzeegia izango litzake-ta. Iztegiko lenengo izkian idoro dodazanak bakaíik aitatuko ditut : abelkera, abeltegi, agozabalka, aihaltiaí, aihaltu, aigaltu, aispiltu, aiskolta, altegi, amiltegi, amiltoki, angeltasun, apaltasun, apaltegi, arkaltasun, aizkolkari, axkolkari, amilka, amilkoí, anbelka, anbeltoki, anbilkatu, akolkatu, arilkari, axolti, astalka, astalkari, astalko; aginkari, agintari, agintaritza, aginte, aintzinkari, aitzinka, alaíguntegi, hankoi, hankotiasun, amental, arbintasun, ardan-

tegi, arintasun, astuntasun ; hazberapenti, añenti, anenka, aldamenka, arlankaitz, árankura, astalka t. a. Ager da, ba, itz askotan aldakuntzarik ez dagoala : baña beste askotan aldakuntza ori egiten dala be lentxuago ikusi dogu.

Orain ba : aitaturiko aldakuntza ori, iñoz egitekotan, gertaldi bi oneitan gitxienez be egin beaí dala dirudi : lenen, abots bardiñeko ta ikuŕpen berezi bikoitzak eragoztek, beaŕezkoa danean ; bigaŕen, abots gogor etá baŕdiñak alkaŕen jaŕai ba'letoŕz, itz osoa bigun eta gozoago izan dedin, izpiakera-arauz aldatu leikena, kezka barik aldatu beaí dala deritxat.

Estalgi, iraulgi ta odolgi'k abots baŕdiñik ez dauke alkaŕen jaŕai : euskalki'k bere *kalki* ori of darakus : izpiakera-arauz bigaŕen k ori g izan daiteke : aldakuntza au egiteko, beste iru itz oŕeitan baño zegati obea dago : beraz, euskalki baño euskalgi obeagotzat daukat.

---

§ IX

## ERDERATIKO-ITZAK, ITZ-BARÍJAK ETA AINTXIÑA-ITZAK

(GARIŁ. 23<sup>º</sup> BATZARAN ALTUBE YAUNAK EGINDAKO IKERPENA<sup>1)</sup>

### ASTE-ATALA

Itz-talde oŕeetatik, zeintzuk ontzat artu bear dira eta zeintzuk baztartu ?

Euskaltzaindiarentzat erabagirik betetze-eŕezena uŕfengo bijoetatik bat litzate :

I. Bota sokondo batera erderatiko itz oro eta ordez-

1. Ikus EUSKERA onen I<sup>º</sup> Atala, 78' gaŕen ofian.

tzeko bilau aintxiña-itzetan, edo asmau bañi-bañijak. Lan polita azkenengo au; euskal-ikasti-laneetatik atseginga-fiena. Baña, erabagi au, atseginga-fia izan afen, Euskaltzaindiak ezin artu leike; mundu guztiko izkuntzeetan zer jaso oi-dan, munduko gauzak zelan diran, eta euskaldunok mundutafak gareana berau be, aztuta edo ez jakin da baño ezin artu lei orelako erabagirik-eta.

II. Artu, euskerea, bizi dan legez, eta emon ontzat euskaldun geyenak gaur aotan darabiltzan erdera-mordoi-lozko itz oro. Erabagi au be artu ezin leikena, eztago zertan esan be. Gaurko euskerea, sori-txafez, erdal-itz mordoiloz azuñetaraño josita bizi da-ta.

Egal edo ertz bi oreeetan eztago bada erabagipiderik; au, munduko gauza geyenetan oi-dan legez, egal bienbitartean dago; eta auxe bilatzen gaitza, eñijak berez ondo egin eztaroanean.

Baña gaitza dalata bertan bera utzi be ezin giñeijo, eta goazen auñera, mustuñez-auñera jausteko bilduñez baño ezpada be.

Igez argitaldu neban « De Sintaxis euskérica » deritxon liburutxuaren 77-gn ofi-aldean, ona emen zer niñoan, gai beroneri buruz :

« En estos últimos tiempos en que se ha acrecentado bastante la afición a la escritura euskérica, se observa, por otra parte, que la mayoría de los euskerágrafos entiende que la corrección de un escrito debe juzgarse por el menor número de voces de origen erdérico que se empleen en él. El error no puede ser más grande.

« El empleo de voces importadas de lenguas extrañas es un recurso absolutamente legítimo natural y útil<sup>1</sup> para

1. Las palabras de origen erdérico pueden agruparse en tres clases :

I. Las euskerizadas, o sea las que han sufrido algún cambio mor-

la vida de ellas ; así lo entienden todos los lingüistas aun de los países que como el alemán y el inglés tienen una numerosa población y poseen idiomas muy ricos en cuanto a su adaptabilidad y capacidad para la formación de voces nuevas sin recursos extraños.

« En cambio la gramática de una lengua es el alma de ella ; y en ningún idioma de los que se precian de cultos es permitido faltar a la más insignificante de sus reglas. El español p. e. admite de grado el empleo de innumerables voces prestadas por el francés, el inglés, el euskera, etc., pero nunca transigirá con euskerismos como p. e. « No quiere y... », « Grande grande que es dice » etc., ni con galicismo como : « el niño ha visto la madre » etc.

« En cambio en euskera soportamos los erderismos sintácticos más garrafales con tal que se intercalen de vez en cuando algunos neologismos de peor o mejor gusto. Con lo cual, además de destruir la lengua en su aspecto más íntimo cometemos el mal de hacerla doblemente incomprensible para los que no saben más que el euskera popular, que entiende poco de neologismos y se pierde con las enrevesadas oraciones y frases construidas al estilo español. »

### Auxe giñoan aitaturiko liburutxu aretan.

fológico al ser introducidas en la lengua vasca ; v. g. : luma (pluma), landara (planta), urkatu (de ahorcar), erloju, balijo, pixu, liburu, makiña, kanpai, gaztelu, etc.

II. Las que, a pesar de no haber experimentado tales cambios, su uso se ha generalizado mucho en el habla popular ; v. g. : pelota, toíce, kotxe, pañila, lima, etc., etc.

III. Las de uso universal, como : politik (a), akademi (a), musik (a), orkest (a), zepelin, hotel (u otel), kafe (o kape), etc., etc.

A nuestro juicio, no debemos tener reparo los vascos en incorporar a nuestro iztegi todas las palabras correspondientes a estos grupos. Otras lenguas menos necesitadas de ello que la nuestra no dejan de aprovechar esos recursos que tanto enriquecen sus respectivos léxicos.

Euskaltzaindi onek, erderatiko itzak noiz onetsi ta noiz ez ebatsiteko, oiñ-arau (bases) batzuk nai leukezalatxa, arasotxu au agindu euskunean, goragoko erdelitzok irakuíz, amaituta genduala uste izan gendun berau.

Baña geroago, euskal-irakurkizun batzuk aztertu, euskaltzain-lagun batzuen eretxiak be entsun eta irakuí ditugu, eta ara begiratu ona begiratu, geure ustezko oinarrauok zeaztxoago azaltzeko asmoa artu dogu.

Eta, onetarako, lantxoau, beronen buruan izentau ditugun iru atal oñeeitan banandu bear dogula uste izan dogu : *Erderatiko itzak, Itz-bañijak eta Aintxiña-itzak*; oñari iru atalok.

Lenengo, bakoitzari buruz esango dogu zerbait; eta amaitzeko, irurok eta beste itz oro batera artuta.

## I. ATALA

### ERDERATIKO ITZAK

Ona emen, geure ustez, euskal-iztegiratu bear ditugun erderatiko itzok : Euskal-erian, zabal-zabal (bardin ez-pada zustrai bateko) antxiñatik eta ondo luha-artuta bizi direan, eta euskaldun jatoñentzat esan-eŕez diran oro, Berbarako : eŕazoi (edo afazoi), balijo, seguru (zigur edo ziur), olijo, dantza, zapo, bala, pelota (edo pilota), eliza, garaun (grano) eta abar.

Erderatiko itz oñeeitatik batzuk euskal-iztegian sartzeko, beste batzuk baño ate zabaltxoagoa bear eukeela deritxogu. Ona emen, gure ustez, zeintzuk zabalen bear dabeen :

#### A) *Euskera antza artu dabenak.*

I. Erderatik euskeraltzean, zerbait euskal-ots-arauen bidez (por medio de las leyes fonéticas vascas) edo ain

barik, aldatu diranak : *maiñu*, *mailuka*, *jungura* (yunque), *poñu*, *zoru* (suela), *luma* (pluma), *landara* (planta), *urkatu*, *erloju*, *pixu* (peso), *eliza* eta abar.

II. Euskeraratzean erderatiko zentzun edo ikuña (significación) aldatu dabenak : *érota* (rueda), *makiña* bat (mucho, multitud), *kalamatrika* (erderazko « gramática » tik dator eta recovecos, rodeos esan nai dau), *éretolika* (retahila), *zapo* (mal intencionado), *puntuon* etofí (venir hace un momento) eta abar.

III. Erderatikoi euskerazko beste itzen bat ezafita bizi diranak : *tabakoñi*, *eliz-gizon*, *zapo-buru*, *pipontzi*, *artagaraun* eta abar. (Baliteke *argizeri* itzonen bigañen zati ori (-zeri), erderazko « cera » izatea. Baita *itxulapiko-ren* -*itxu* ori be erderazko « ucha » ren senide izatea. « Ucha » tik « itxu » etortea ezta gaitz, baña onela ezteritxonari Gernika-aldeko « utse lapiko » ipiniko deutsagu bitarte : Gernika-aldean, *ure*, *azuré*, *utse*, esaten da *ura*, *azuña*, *utsa* esan beañean, eta jakiña, utsa-lapiko'ren ordez utse-lapiko. *Utsa* ori ezete da ba erderazko *ucha*?)

IV. Erderatikoi euskal-izkiren (afijo) bat ezafitakoak : *Tripaki*, *elizako*, *zapokeri* (marrulleria), *geírate*, *elizkizun*, eta abar. Eta onelako itzok dituezan itz-zustrayak : *tripa*, *eliza*, *geíra* eta abar.

B) *Toki-izen eta abizenetan bizi diranak.*

Euskal-eñiko toki-izen eta abizenetan sustraya bota dabentzitako itzak : *toñe* (Toñea, Doñegarai, Toñeldai), *eleiza* (Elizalde, Elizondo, Eleizpuru, Elizgoiti, Eleizabeitia), *gaztelu* (Gaztelugaitz, Gaztelupe, Gaztelondo), *monesterio*, *geíra*, *éreminta* (Erementeria), *eírenta* (Eñenteria) *tela* (Teleria) ta a.

C) *Ots-egokizkoak.*

Euskal-belañientzako, erderatiko itzoen otsa eta zentsuna edo ikuña, alkañeri egoki-egoki jatorkoezanak : *kanpai, ezpata, kañoi, pipa, eskopeta, trunboi* eta abar.

D) *Atzeri-gauzeenak.*

Erdel-itzak izentetan daben gauzea be atzeñitara edo atzeñitar-antzkoak danekoak : *peseta, txelin, gitara, gobernadore, karabiñeru, gorda-zibil* eta abar.

E) *Mundu guztitarak.*

Mundu guzti edo geyeneko izkuntzaak eurendutako itzak : *politika, musika, orkesta, hotel* eta abar.

F) *Euskaldun lauen artekoak.*

Itzok, eñi-lau edo apalaren ao ta belafietan safi-safi ibili-beañeko diranak : *lima, tomate, sardiña, tximiri, maniña, zerra, eliza* ta abar. (Erderatiko itz batzuk euskal-iztegiratzeko zegaiti bat baño geiago dabe ; *eliza* itzak ei ditu ikusi dogunez ; *zapo* itzak iru edo lau ; *lima*'k bi, eta abar. Itzen izatealde (aspecto) au be, iztegia eraltzeko gogoan euki bear dala dirudi.)

G) *Erderatiko izkidunak (Compuestos de afijos erdéricos)*

Euskeraldukeren gitxi-asko aldatu diran eta euskaldunen artean oso sartuak diran erderatiko izkia (afijo) daben itzak eta izkiok eurok be bai, lañegikeri barik : *urkamendi, ondamendi, irudimen, garaipen* eta abar.

Eredutzat (como ejemplo) atara ditugun atzizki (sufijo) oneek, latiñezko *-mentum*-edo gaztelerazko *miento-tik* artuak dira antza ; baño aldatu zamartuta dagoz eta euskal-belañietan, ain txarto be eztirala sartzen esan lei. *Buru-*

*tansiño, asmasiño, gogorasiño*, eta beste onako askok, lengook baño erdal-antz geyago dabela esan lei, erdel-atzizki ori aldatuxe dabe baña. Beste, ezer aldatu barik euskeraratu diran erdal-izkirik geyenak ezteritxogu ontzat emon leitekezanik.

Eta onetatixek jatorku orain esan ditugun arau-bayetztoi (ley afirmativa) oíeen argipide eta amaipiderako egoki-egoki datoñen beste arau-ezetzkoi (ley negativa) bat be. Ona emen berau : Euskal-iztegian sartzeko aterik estuen-estuena bear daben erderatiko itzak, erdel-zustrayaz gainera erdal-izkiren bat geitura dabenak dira : *lima, pelota, sardiña* eta antzeko itzak, eztira euskal-belañtetzako mingaí-mingaíriak be; baña, *limadoria, peloterua, sardiñeria*, eta beste euroen antzeko, iruntsi-eziñezko, eta alan da guzti-be, egunero entzun oi-ditugun itz asko, eztogu uste iñok ontzat artu bear diran eretxirik izan leyenik.

Bardin diñogu erderatiko itz bikoitzai buruz be : *sakakortxoa, luz-eletrika, kafekoletxe* eta antzekoak, ezdai-tekez inoiz euskal-iztegiratu, eñjak aldatu-aldatu-egin-da, edo itz bikoitzaren zatiak, banan be, ontzat emongaíriak izan ezik.

Eta atal au amaitzeako, Euskal-eñjak oneetariko itz mordoloak darabiltzan ezkerro, ezteiguzan guk, ostera, *lima, limatzaile, pelota, pelota-zain, sardiña, sardiñadun* eta onako beste erderatiko eta erdel-zatidun itz asko loye-gitzat bantzartu ; bestela, Euskaltzaindi onen euskerea eta Euskaleriarena, egiñalak eginda be gaitz izan daite egundo batetara ekarten.

## II. ATALA

### ITZ-BAÑIJK

Ontzat artzeko, ondo eraldu edo egiñikoak izan bear dabe oro.

Euroetatik lenengo artu bear ditugunak oneexek dira :

A) Euskaldun geyenentzat esan-gura edo ikurpen argi eta ulertze-eŕeza dabeenak : bełauŕeko (anteojos), oñestoráztz (pararrayos), bidekatu (descarrilar, desviar), elizain (sacristán), gaizkatu (salvar), gizamaila (jerarquia), goi-argi (inspiración) eta abar.

B) Euskaldun artean naikotxu zabaldu diranak : batzoki, abeŕi, bazkide, auteskunde, idatzi, idazki eta abar.

C) Erabardiňez edo antzekoz eraldunikoak : berbarako, *itzi* « tratado » tzat bein artu ezkerro, itz ori zati dala eraldutakoak izan bear dabe ikurpen ori daroen itz oro.

Bardin, izkidun itzai buruz be : beraz, izki (afijo) bat baŕu dala itz baŕirik eraldu baño len, izki oŕen ikurpen edo zentzuna zein izango dan garbi azaldu bear da. (Bide au iztegiari jagokozan gauza orotan jaŕaitu bear dogu alegiňez. Itz bat zein eratan sortu edo zein pilotatik artu dogun, ba bardin beste bere antz edo senidetasuna nambahitetik daben oro be. Onegaitik, itz bat eraldu orduko, begiratu bere antzekoak zelan eralduta edo eraltzeko diran.)

### III. ATALA

#### AINTXIÑA-ITZAK

Aintxiña-itzak, guztiz il ziran euskal-itzez gañera eŕi koskoŕen baten il-agиňian bizi-diran oro artu daikeguz.

Eurok bizi dirana edo iñoz bizi izan dirana, iñok ganoraz ukatu eziňezko argitasunęz bayeztu bear da; au lenengo eta bigaŕen, aintxiña-itzok aintzat artzeko euskal-jatoríi garbikoak izan bear dabe.

Aintxiña-itzok be, itz-bañien antzera, lenengo ontzat emon bear ditugunak oneexek dira :

A) Ikurpen edo zentzun ulertze-eŕeza dabeenak : eregi (levantar, edificar), asaba (ascendiente, antepasado).

B) Bizitza zaárez, edo berbiztu diralako, edatuxe diranak : txiro (pobre), eraile (asesino, matador).

#### IV. ATALA

##### ERDERATIKO-ITZAK, ITZ-BAÍIJAK, AINTXIÑA-ITZAK ETA BESTE ITZ ORO

Ontzat emon ditugun itzoi, beste jatofi garbiko izanik asko ezagutuak diranak gañeratu ezkerro, batzuetan, bat baño geyago al-dira gauza edo ikurpen batentzat; beste batzuetan, orotara jota be, eztogu bat be aurkituko. Utsunek eta laŕegiunek arteztzeko ona litzake úrengo lege oni, andiz-andi jaŕaitzea; ez itzez itz, ezin leike-ta.

Gauza eŕikoiak izentetako, itz edatu edo ezagutuene-tara jo bear dogu alegińez. Gauza andikoi edo jakitunen artean saŕiago ibili oi-diranak izentetako, edatasunori baño zeatztasuna goratxoago imini lei.

Ona emen, orain, gertakun edo jasokunik gogoraga-fienak.

A) *Gauza bat izentetako, itz bat baño ez izatea.*

Au bitara gertau leite :

I. Euskaldun orok itz ori bardin oguztu edo esatea : Ama, Gizon, Seme, Luma eta abar. Sorionezko gertakun oneri buruz eztago zer-esanik.

II. Sustraiz itz bardiña dala, euskaldun batzuk era batera ta beste batzuk bestera ogutzi edo esatea : Andere, andre ta andra; Uri eta iri; Pelota ta pilota. Au jaso oideanean, egoki izan ezkerro, itz-antzekoak, ikurpen edo

zentzun-antzeko (sinónimos) gauzeetan banantza litzake onena ; eta ori egoki eztanean autu bat, edatuena edo zeatzena, gorago, edatasunari eta zeatzasunari buruz imini dogun legea al-bada sainduz.

B) *Gauza bat izentetako, itz bat baño geiago izatea.*

Ona emen batzuk : Etoñi eta Jin; Itandu eta Galdetu ; Jaso eta Gertatu ; Gutun, Liburu eta Idazti edo Izti.

Onakoetan banandu egin bear dabe itzok, ikurpen edo zentzun antzekodunen artean ; onela, berbarako :

I. Liburu (itzik edatuena, ezagunena) erderazko « Libro » izentetako ; berau da iru itz-antzkoetatik edatuena eta eŕikoiena-ta.

II. Gutun (itz garbia eta edatuxe be bizi dana baña ez liburu aña) « Boletin » edo antzekoetarako egokia da.

III. Idazti edo Izti (itz baŕi zerbait zabaldu diranak) « Tratado » edo onen antzeko jakitun usaiñezko gauzeentzat egoki egokiak.

C) *Gauza batentzat ezetariko euskal-itzik ez.*

Au jaso oi-danean, itz barfija eraldu bear da ; eta onetarako be, begiratu goragoko edatasun eta zeatzasunari buruzko lege ofí.

Gauza eŕikoia bada, eŕi lauak saŕi aitatu bear dabena, eraldu daigun itz argi eta bein entzunda eŕez-eŕez aitu eta ikastekoa.

Andikoia bada, jakitunentzakoa, orduan itza ondo eta garbi eraltzeari begiratu giñeijo, aitukoi edo ulerkoi iza-tearen gaiñetik ; baña au be laŕegikeri barik.

*Amaitzeko.*

Arazo áu, eztot uste, dakardan lantxu onegaz, guztitudanik ; ona litzake beraz, gai oni buruz, bear diran

erabagiak artu baño lenago, oin-arauok euskaltzain bat-kotxak artu aztiro-aztiro eta bere eretxizko artezketa geitze edo gitxitzeak euroi egitea.

ALTUBE, *euskaltzaina*.

---

S X

## ERDERATIKO ITZAK, ITZ SORBERIAK ETA BEINOLAKO ITZAK

(BATZAR BERTAN AZKUE YAUNAK EGINDAKO IKERPENA)

Gure lankide, izatez asbeíi, irudiz as-zaí onek beronen lan politari, *amaitze*ko guri zuzendu dizkigun leíoetan, izen egoki bat ezári dio : oin-arauak (erderazko *bases-i dagokion itz goxoa*).

Nik nere lantxo oni ç zein eman otenezakikeo ? gure baseñitáfrak oinetakoentxaplatatx adierazteko gutxienez bi itz erabili darabilzkite : *zopita* Bizkayeraz; Gipuzkeraz *zazarki* naiz *zazarkin*. Itz auetatik bat zein bestea aotan artuko banu, Altuberen ikeŕpena abarka zar baten ide dala erakutsiko nuke, *zazarkin-zopitak* abarka-ixaplatatx baitira; nik, ordea, gure lankidearen etekin au lan eder, mamintsu, zinezko oin-arau esten det. *Geigai* izan nere zertxo onen izena ta bañena sar gakiozan.

*De Sintaxis euskérica* izenez orain urte bete argitaratu zuan gutuntxoan erderatiko itzak irutarikoak dirala irakatsi zigun : 1º euskerazkotzean aldakuntzetxoren bat izan duenak : *luma, landara...*; 2º oso-osorik gure ezpainenetan bizi diranak : *pelota, torre* ta beste batzuk ; 3º beste edozein izkeratan mintzo oi diran *política, academia, música, orquesta, zepelin, hotel, cafe*. Eta iru mordo auetako

itz guziak, beren antzekoak ondoan zituztelarik, gure iztegian sartu bear ditugula uste zuan. Irugafen mordokoak, geyen geyenak beintzat, iguin ez ingira gabe sartuko nituke nik ere ta « política » *politica* izango genuke; « música » *musika*; « orquesta » *orkesta*; « zepelin » *tze-pelin*; « hotel » *hotel*, *h* ta guzti, garezti ere ezpaita; ta « café » etxea danean *kafetxe*; ta zurut egiteko ur beltza bada, *kafe* esango nuke, *hape* nere efiko arantzaleai ta akeña Hazpaén-aldeko atso edaleai utzita.

Beste bi mordosketako erdalitzak geyagoko gabe eni-  
tu ke iztegiratuko. Euskaleñian inun ere ordezko itz jato-  
řizkorik eztutenak, oriek bai. Altubek bi sail orientan bil-  
dutako itz geyenak dute, ordea, nimbait beren egokia.  
*Erloju*-ren ordez Lapurdin ta Benapároan « oren » entzun  
det alde ta aldi askotan; *balio* andikoa, « domutsua » esa-  
ten zuan nere Amak; *pixu* « azta » da Bidasoatik aronzko  
zenbait iritan; *liburu*, gutun; *makiña*, lanabes Axularén  
egunetatik, laburénez; erdalitz *lumaren* ordez *erbatz* degu  
nimbait txikiak adierazteko, andiak *egals* toki askotako  
itz dute berenki; *landara*-ren ordez *ondozko* (bear bada  
*ondosko*) batu nuen Bizkai ta Giputz-uri batzuetan; *ur-  
kalu* ta *gaztelu* dira orderik gabeko ta sail ofetako erda-  
litz bakařak.

*Kanpae*, *kanpai*, *kanpana* esan beařean *txilin* esan oi  
degu Bizkaiko alde askotan. Ain zuzen ere « bronce »  
*Txilinki* esaten dala Altube-ri ikasi nion « material de  
campanas » itzez itz. *Zeinuak* deraunzano esan zigun Oihe-  
nartek *kanpayak oska ari diranarte-ren* ordez.

Norbaitek yarki dezaket Oihenartek ori idatzi baino  
mila ta seireun bat urte lenago Sallustiusek *Signa canere*  
(gure *yoareak* (instrumentoak)-yo) esan zuela; ta Benapároaco ta Zubero-aldeko « zeinu » ori latinu zafen *si-  
gnum* zala ta zeinu baino kanpae belařirako ozenago dala  
ta bat ori ala beste au autatu bear bada.....

Bai, ulertu det; baina neri ere bide bezait esatea : 1º txilinak oska diran artean, kanpae oriei mingaina kentzea on dirudiela ; 2º txilinak isildu balitzazkigu ta Oihenarten zeinua ta Sallustius-en *signum* izaki bakar bat izanañen, zeinua zañago da gure artean, kanpana ori gainera nabarmenagoa, bere atzefi-kutsua afanpalo darakuskuna ; ta ozenago ala motelago izate ori..... bai, Eítorika ikasi genuen egunetako gomutatxo bat buruan duen bat edo batek aipa dezazke Iriarte olerkariaren arako neurtitzak :

En una Catedral  
una Campana había  
que sólo se tocaba  
algún solemne dia.

Kanpanketa ozen ori Schiller-en *glöke-ots* ozenago onek erantzun dezayola :

Von dem Dome schwer und bang  
tönt die Glocke Grabgesang (¹).

Ozentasuna bear bada, ez Iriarte ez Schiller ezta sakristaurik ere eztu bear gure txilin-ek edozein belaŕitan otsa zoli-zoli egiteko.

\*  
\*\*

Barka, lagunak, nere luma nai nuen ta bear zan baino bizkoñago ibili bazait. Altube' taŕ Seberk bigaŕen sailean bost itz sartu zituan : *pelota*, *toŕe*, *kotxe*, *paríla* ta *lima*. « Torre » Eíonkarin<sup>1</sup> *txirin* da ; « parrilla » aintzinako zurezkoa beintzat *matxaŕo*, Alduden ta Getaryn gutxienez ; « lima » ren ordez *kaŕaka* esan oi da Benapaŕoan, Lapurdin ta Zuberon. *Pelota* ta *Kotxe* oriek bai, sar bekiz-

1. Katedral batetik dingilindan zeinua durundika ari zan.

2. Saraitzun (valle de Salazar) Eíongari ta Kalesa esan oi dute Eíonkari-ren ordez.

kigu, au beronen *pescante* ta guzti, nai badu; hura, beraren *paret* eta *erébolea* mugan utzi gabe.

\* \*

Gero gure araulariak, zerbait geixeago aztertuz ta norbaitzuk onetarako itunduz, oin-arauok zeaztxoago asmoa artu zuan. Bere aburuz gure Iztegian, bi ateak zabalik, artu bear ditugun erdalitzak auek dira :

1º Euskerazkotzean beren otsa nolabait aldatu dutenak; eta erakusmentzat, lengo *luma* ta *landara* ta *urkatu* ta *erloju* ta *pixu* (erderazko « peso »)-ren gainera beste itzok aipatu dizkigu; *maila*, *mailuka*, *yungura*, *poŕu*, *soru* (erderazko « suela ») ta *eliza*. Len esan dedana : auek eta beron tayudun erdalitz aldatuxe ditugun oro etxeko egin ditzagun, baldin beroi dagozkiten itz euskera *utzezkorik* inun ezpada.

2º Gure artean bizi diranartean beste zentzun bat artu duten erdalitzak. Erakusmentzat sei itz dakarzki : *eŕota* (noizbait « rueda », orain « molino »); *makina bat* (lenago « máquina », gure egunotan « multitud »); *kalamatrika* (aintzina « gramática », aspaldion ere « gramática parda »); *eŕetolika* (asaben artean « retórica » « gizaldi oneitan beintzat « retahilla »); *zapo* (jatoritz « sapo », gaur « mal intencionado » ere bai); *puntuon etoŕi* esakeran « punto » tik « momento » ra yo du erdalitz ofek. Nik beti lena : euskalodol gabeko itz gizaldiz gizaldi gure artean bizi diranak ere ezpainez belaŕi erabili dezazkegu, baldin euskerak berez orien ordezko itz egokirik lendik ezpadu. Ain zuzen ere Altubek erakutsi dizkigun sei eredu oriek, seirok dute bakoitzak bere ordea, gutxienez bat. *Eŕotak* bi ditu : bat erderatikoa dirudien *bolu*, bestea itz jator, masal, Gorbea bezain urtetsua ta geron gerona : *igara*. Tamalez iru aldakuntze ditu ele edeŕ onek : *ehara*, *eihera*,

*iħara.* Euskera, zugatzak bezela, bizi beñia emateko, inaus dezagunean, onelako itz-aldekuntze auek lur yo bear izango dute. *¡ Makina batek makina bat ordezko.* ditu, euskerazko ta erderazko, euskera mordoilozko ta erdera ustelezko! Lenengoa : *bost daki ořek!* Bigañena *¡ Amaika badu!* Irugañena *¡ Au da zaldiz!* (AN). Laugañena *¡ Au da zaldizkoa!* (B). Boskañena *¡ Au da zalditzea!* (B). -Seigañena : *elepenia* (Ormaiztegin), *elemena* (Árona-Azpeitietañ), *eleluma* (Andoainen), *emana* (Lañaunen). Zazpigañena : *sendo* (Lekeitioñ). Zortzigañena : *indar* (B-I). Bederatzigañena : *iñauři* edo *ihauři*. Amargañena : *alde* ta *talde* : gizalde, beitalde... Amaikagañena : *saldo*-Amabigañena : *-keta* (AN ta L) : *gizonketa*, *arai-* ta *arainketa*, *yendeketa*. Amairugañena : *ze xori-bola* (S). Amalau-gañena : *uakana* (B-l) itzez itz « el huracán ». Amaboskañena : *inpirioa* (B-mu) itzez itz « el imperio ». Amaseig-añena : *ainbeste*. Amazpigañena : *edozeinbat...* eta abar.

¿ Ezaldezue uste, gizonak, onen beste itzek eta esakerak makina zartxo ori, batak bil edo gurpil batetik, besteak igunetik, besteak sayetsetik, besteak kирtenetik, azpi- ta gainetik elduta, poliki-poliki Ebrora eraman ta uretara yaurtiki dezatela?

« Mal intencionado » adierazteko ere *zapo-ren* ordez baditugu *erube*, *zital* ta besteren bat. *Puntuon* etorri da esan beañean, *arestian* entzun oi da Gipuzkoan. *Kalamalrika* ta *eretolika-k* aide asko ditue gure artean nik bati ere nere Iztegian tokirik ez eginañen. *Astroliotasunak* « astrólogo » esan nai zuen beinola, orain amañukeria adierazten du ; *artzobispokeriak* bereratasuna; *doministikuna* usin, enoxun edo atijea (estornudo) adierazteko erabiltzen du gure eriak. Lekeitiañak *susunkordan* gelditzen dira ařigarizko zerbait entzutean, apaiza meza-bitartean *Sursum corda* esanda gora begira gelditzen dan bezela. Onelako izentzat ere izan dezakegu gure etxeñ txokoren bat, bizirik

geyena lo eramango duela yakin dakigularik. Ezaltzituan Cervantes-ek Sancho Panzaren ezpainenetan *voquibles* ta *leña* ta *cris* jartzen *vocablos* ta *linea* ta *eclipse*-ren ordez? Cervantes-antzekorik gure artean bat izan ezafen, Sancho Panzaren antzeko Anton Peñoak ugari ditugu ta bizi bitez beren ezpainenetan *kalamatrika*, *eretolika*, *astroliokeri* ta oñen ereduko elekondotxoak ere, ni gora-bera.

Iruñgařen erdalitz guretzat artzekoak « euskerazko beste itzen bat ezařita bizi diranak » ditugula dio oinarraulariak. *Tabakori*, *elizgizon*, *zapaburu* (zapo-buru eztet bein ere entzun), pipontzi, artagaraun eta abar.

Gizon ařotzakin bezela gertatzen zaigu (len aipatu dedana) itz ařotz oyezaz ere. Vallabrigas karabinerua Jaun-gokoak dakian nundikbait agertzen zaigu, Arizmendi neskatxa aldamenean duela Pařoku yaun bati agertzen zayo ta ark, saputs bada ere, ezkondu egin bear ḡnork atera gero Euskalefítik Vallabrigas-Arizmendikume ayek? Aberastzera nai beintzat zerbait izatera elduz geroz, bādakie Juan V. de Arizmendi dirala esan ta agertzen.

Artagaraunak iretsi ta zapaburuak il ta pipontziak austea eřazago du beste aldera eramatea baino.

Gernikako euskaltzain odolotz onek ango *utselapiko* dala ta eztala diona egia izan diteke, nik ikusi ezařen. Erderazko *hucha-tikoa* dala uste du. Lekeitio, Mundakan ta beste alde askotan *itsulapiko* du izenā, Gipuzkoan *eltze itsua*, erderaz « alcancia » ta « olla ciega » ere bai. Befiz diot. Nik ikusi ta uste izan ezařen, egia izan diteke *argazagi*-ren aldakuntze *argizeri*-z diona bezela ta goazen auřerà.

Laugařen oin-araua osorik artu bear bagendu *berbaren* ordez *itz* erabiltzea ezkenuke bide izango.

« *Tripa* » erderazkoa, euskalatzizki (sufijo) *ki* ezařita *tripaki* esaten degulako, euskerazkotzat erabili bear izañezkeron nor azartuko da *berba* iztegitik eta autuetatik

ateratzen? *Berbaldu* « hablador », *berbarako* « por ejemplo »; *berbaro* « rumor de voces », *berbatu* « convenirse », *berbela* « conversación », *berbots* « ruido de palabras », *berbaldi* « plática ». Oizmendi-aldetik nere yaioteríra al-dikada baten gazta-saltzera artzain bat etortzen zan. Bein kalera-ezkerro, bere etekinak érazago saltzeko edo, erderaz aldañi egin bear zala uste zuan; ta Lekeitiar bañesamuñen belañiak ederki gozatzen zituen Oizko gaztanginak kalean « El Gaztanero » deadar eginez.

*Ero* atzizki ori erderazkoa izanañen ç artuko otelukete beren iztegian Maurak eta Menendez Pidalek El Gaztanero, « el quesero »-ren laguntzat? Seigañen oinaraauak ere eztakit artu otedezakegun. « Ots egogizko » erdalitzak iztegiratu bear ditugula. Ots egogizkoak dira gure belarietarako *txopoa*, *palazioa*, *miserikordia*, *piso prieroa*, *adelantatu* ta *altrasatu* ta beste gabe gure *makal* ta *yauregi* ta *eruki* ta *lenengo bizi* ta *aurekalu* ta *atzeratu* (*aitzin-gibellatu*) yaiegunetarako soinekoak bezela kutzan sartu bear oteditugu?

Atzeñiko gauzak atzeñiko itza beukate izentzat: « *peseta* » *pezeta* izan bite, « *guitarra* » *gitarra* ta « *picador* » *pikadore*. Zalantzaiditxo batean asmatzen det, oñegatik, nere burua.

Atzeñiko gauza batzuk bi itz dauzkate euskaldunen artean; bata erdera zañetik artua, bestea gure egunetako erderatikoa. *Pezeta*-ren ordez *libera* esan oi da Bayonala-dean; *Kanonigu* emen diranak an *kalonye* dira; Bizkaiko *bautisoa* beste alde askotan *bateo* ta *batayo* esan oi due. Ç Zeintzuk artu bear oteditugu aintzat?

Úfengo oin-araua ere, oso-osoñik eta efotik erauzi bear ezpada, ikutu beañekotzat daukat. Euskaldun lauen artekoak dirala ta beste gabe erdalitzak euskerazkotzat artzeari ezteritzayot egoki kutxan gurerik degula beintzat. *Kabaloa* ta *karoa* ta *binagrea* ta *tanbora* ta *kopeta* ta *pana-*

*deroa ta petxoa ta kamisa ta kostura lisoa ta beste amai-kareun mordoiokeri efi lauak = publiku sentziloak esan oi ditu ta guk publikutxo ofi gustu emateko zaldiak il egin bear oteditugu ? gurdiak eta orgak efe ? orpina isuri ? aŕaskoa puskatu ? bekokia ta bulaŕa estali ? okinak aŕoztu ? atoŕa jokura legun ta guzti betiko gorde ?*

Egoki ta erara aipatu digu Altubek zentzun berdina edo beintzat berdintsua duen itzak banandu bear genitukela. Iztegiaren itzaŕean onelako gertaritxo bakar bat aipatu nuen : *itandu ta galdu*. Euslari geyenak zentzunide (sinónimo) dirala uste izan aŕen, Izpazteŕko luŕean entzun ditut zentzun baňa duela : « preguntar » ta « averiguar ». Ona emen geroztik bildu al izan ditudan gertari edeŕak, guziak eŕiarenak.

Reparticiones semánticas populares :

1. *Agotz*, herrero ; *arotz*, carpintero (AN-lakuntza).
2. *Aitzur*, azada ; *aiztur*, tijeras grandes (AN, BN, L).
3. *Apaldu*, cenar ; *apalatu*, humillar, abatir (B-mu).
4. *Aŕainzale*, ictiovoro ; *aŕantzale*, pescador (B-l).
5. *Aup*, grito de llamada ; *eup*, insulto (B-l).
6. *Buruko*, montera, toca ; *buŕuko*, almohada (B...).
7. *Biztu*, resucitar ; *bizitu*, animarse, encresparse (B-mu).
8. *Beetxe*, entresuelo ; *beketxe*, casa de abajo (B-mu).
9. -era, acto ; -kera, modo (B...) ; *Egoera*, estancia ; *ego-keria*, postura (B-mu) ; *ibilera*, andanza ; *ibilkera*, porte (B-l...) ; *urteiera*, salida (puerta) ; *urteikera*, salida (acto) (B-g).
10. *Gaba*, la noche ; *gaua* la cerrazón (B-l) ; En castellano *próximo* y *prójimo*.
11. *Elizkari*, funerales ; *elizkizun*, función de iglesia (B-mu).
12. *Gose izan*, sentir hambre ; *gosetu...*
13. *Ekak*, dáme ; *ekaŕik*, trae ; *ekazu*, deme ; *ekaŕizu*, trai-

- game V. (B...); *koko*, *bobo*; *mamo*, *boba* (B. ms. Otx. p. 15).
14. *Ondasun*, bienes hacienda; *ontasun*, bondad (B).
  15. *Oba*, mejor (cosa); *onago*, más bueno (persona).
  16. *Oratz*, alfiler (antes aguja); *jostoratz*, aguja (B).
  17. *Oraztu*, peinar; *orazitu*, enrarecerse la lluvia, quitar espesura, clarear semillero (B-l).
  18. *Osasun*, salud; *osotasun*, entereza, integridad.
  19. *Ondatu*, hundirse, calarse, arruinarse; *ondoratu*, ir al fondo, naufragar (B-l).
  20. *Lan egin*, trabajar; *landu*, labrar, cultivar (B).
  21. *Osotu*, reintegrar, completar; *osatu*, sanar, castrar.
  22. *Etxandra*, hacendosa; *etxandera*, propietaria (B-mu).
  23. *Sendatu*, sanar; *sendotu*, fortalecerse (B).
  24. *Uzu*, fiero; *uxu*, espanto (B).
  25. *Zapaldu*, aplastar; *zapalatu*, chapotear y desbaratar?
  26. *Zoldu*, enconarse; *zolitu*, madurar (B. ms. Otx. p. 260).

Ona emen, lan oni noizbait azkena emateko, itz zar ta beriz uste dedana. Befírik noraezean baizik ez sortu; zañak ařen bai ařen bildu ta eguneroko paper ta ikasgu edo eskolen bidez Euskaleři guztian zabaldu.

---

§ XI

### ARAU NAGUSIAK

(BELAUSTEGIGOITIA' TAR P. EUSKALTZAIN URGAZLEAK, EPAIŁA'REN  
24 GARENKO BATZAŁEAN EGINDAKO IKERPENA').

1. Euskeraren bizitza ta apaintzerako Euskaltzaindia softu zan.

Euskera *bařdindu*, *garbitu* ta *aberaztutea* bere lan nagu-

1. Ikus EUSKERA onen I<sup>ko</sup> Atala, 68 gařen ofian.

siak dira; yakintza utsezko gai ta lanetan ez da galdu beáf.

2. Euskeraren bardintza beáezkoena da; euskera garbitu gabe, apain guztiak kaltegin ala alpeérekoak dira; Lenengoz egin beáf deguna a da, beste lanetara asko sartu gabe; gaurtik ba, euskera zenbat eta aberatzago ta garbiago erabili, gutxiago ulertu ta irakuñiko da, nekezagoko da euskeldun guztien artean euskera bat zabaltzea.

3. Bardintzara eltzeko *euskelki eredu* bat gertuko du Euskaltzaindiak ta idazkietan gaurtik *nola ta noiz* erabilteko arauak idazleai emango dizkie.

4. Euskelki eredu (bigarko bakaŕa) gertuteko, ériak itz-egiten duten bat autuko da, zerbaítez arautu ta osatuko. Izkelki beŕi bat ez da izango, ezta ere izkelki batzuen naaste ala asmauriko bat; gaur egiñik dagon bat baizik, euskeldun guziak adigafi izateko eragozpen gutxien aurkituko duten Gipuzkoako oraingo euskelkia.

5. Batez ere onartuko ditu Euskaltzaindiak : a) Gipuzkoa geyenean zabaldurik dagozan itz ta erak (yokuak etc.); onako batzuen artetik autu beáf izan ezkero Euskaleŕi guztian zabalduena ala arautuena ; — b) beáezko itzen bat Gipuzkoan izan ezik ala gutxi ezagutua izanik, Euskaleŕi geyenean zabalduena.

6. Érian gutxi erabilten dan iztegia onartzeko guztiz begiratu ta neuŕtuak izango beáf gera. Itz beŕiak, zaár galduak ala baztertuak ontzat artzeko, *beáf-beáezko ta batez ere aŕgi ta eŕazak* izan beáf dira; nok, noiz sortuak, nongoak dirana baño geyago begiratuko zayo oŕeri.

7. Euskeraren garbitze ta arautzeari muga bat yaŕi beáf zayo ta kendu-gaitz ala eziñak ta sustrailak eŕne bizi diran erderazko itzak, gaurtik beintzat bakean utzi beáf ditugu.

8. Izkera indartsu geyenak anaŕtu dituen itz *yakintsu* ta bestelako asko geuretu beáf ditugu, batez ere *gure ar-*

*tean gutxi erabilten diran lanbidekoak, ta ordezko eíaz bat aurkitzen ez zayenak.*

9. Aberastasunak ere bai beste muga batzuk beaŕ ditu (euskeraren bizitzari begira) : *Ikuŕbateko itzak eukitea kaltegiña izaten da askotan : ilu-izen, abere, landara..., onen zatiak..., egunoroko tresna, lanbide ta zeregiñ askok izen bat baño geyago eukitea naaste ta kalterako baizik geyenetan ez da izaten.*

10. Ikuŕbateko itz geyen oriek berezi ta ikuŕ antzeko asko eraltzea, itzak geyegi ugarituaz, gaurtik beintzat ez litzateke egokia. Bardintzaren kaltez egingo litzake lan ori ta euskaldun guziak alkaŕ-uleítzeko yakin beaŕ dituen itz bakaŕak nekezagoo ezagutuko lituke.

11. *Fonetika.* Onetzaz Gipuzkoan bardintasunik ez da goenetan, euskaldun geyenentzako eíazena autuko da, ta eíazena ta afgiena da benetako fonetika kentzea, *itz-batzetako* batez ere, Euskaleŕi geyeneko izkera-lege baten kontra oíegaz yoan ezik.

Fonetika bat edo bestea aítu afen, itz zaafen izki ta izakera ez dira ikutuko ta aldakuntza gabe yaŕaituko dira aek.

12. Al izan ezkerotan Euskaltzaindiaren euskelki ereduz euskera bardin, garbi ta apainduz idatzi ta itz egingo da, baña beti *irakuŕle ta entzuleak uleŕtu* beaŕ dutela begiraturik.

Oíen kalte yoan gabe, euskelki eredua batzuetan *osoro*, besteetan *zatika* (geyago ala gitxiago) erabili leike ta ezbardintasunak gutxitzeako lan onuratsu bat egin.

13. Erabiliko da *osoro* : gipuzkoá euskalkiko aldeŕdian (Gipuzkoa, ta Nabaŕako mendialdea), irakuŕle on ta gei yakintsu ala sakondun idazkietan, Eŕki-aŕteko araz-oetan ta Eŕki batzuetako euskaldun ala geyenen artean zabaldu nai dítagun idazkietan.

14. Gauŕko idazkietako ezbardintasun batzuk *naiiez-*

*koak* dira (Eŕiari eŕaztasunik batere ematen ez dioenak); beste batzuk *noizean bein beárezkoak*.

15. Idazki guziak bardin erabiliko dituan zatiak dira : Ortografia ta Fonetika, itz baŕi ta biztuak.

16. *Zatika* (al dan guziz baña) erabiliko da euskalki eredua, gipuzkoeraren alderditik kanpoan *irakuŕle txa-rentzako* idazkietan.

17. Orduan, baña, *uleŕgaŕitzat* (aditzeko) *beáŕko* diran Eŕkiko itz ezbardiňak oituko dira, besterik ez. Galdu ala bazterturik dagozan Eŕki, uri ala auzo-itzak, geyenai eŕaztasunik ez dioe ekaŕten, neke ta iluntasuna baizik. Uleŕtzen diranetan euskalki ereduaren itzak erabili beáŕ dira (ta euren Eŕkiko ordezkoak geyenetan bazteŕtu), Ori, itz antz-antzeko askorekin egin leike (Baŕi = beńi ; ikatz = iketz).

18. Gipuzkoera-alderditik kanpoan gipuzkoeraz ta bertako izkelgiz, ez bestez, idatziko da ; azpi-izkelgi (sub-dialecto) bat baño geyago bertan balego, bat bakaŕik idazkietarako oituko da, alegińez gipuzkoako euskeraren antzkoena.

19. Euskera bardintzeko lana luzea izanaz, al izan ezkerro geyen erabilten dan iztegi, beafezkoen etik asiko da. *Biotza*, guzlien iztegia ta beste iztegi batzuk edozein berreztu leikez : eŕitar guztiak ezagutu ta saŕi erabilten dutena da lenengoa, beárezkoena. Lanbide-iztegiak, eleŕtiko itz-apaiňak, gutxi aipatuten diran izaki aŕa gauzaen izendegiak, irakurle gutxik ezagututene ditu (askotan oso gutxik) ta beste izkeretan ezbardin bizi izaten dira. Al izan ezkerro ba, Euskaltzaindiak lenengoz bardindu ta euskaldun guzaiak yakin-erazo beáŕ diena da egunoroko euskera, guztien iztegia, len bai len guziak alkaŕ-aditu dezaten.

20. Euskelgi eredua edonun erazautzeko alegińak egingo dira, idazkietan, ikastoletan etc. ; zenbat eta geyago

argitaldu, itz-egin, abeztu, antzeztu... Edonondik zabalduko da euskelgi oñen *itztegi ta gramatika labur-labur* bat, beste eleýtidun euskelgien ikurákin ; Oretan edo guzai emango zaizkion oñitxo batzuetan begi-yote batekin iku-siko ditu lapuútafak, bizkaitafak bere euskelgitik gipuzkoera-eredura dagozan ezantza yakingaíiak.

Bilbon 1920-Epailako 24 an.

BELAUSTEGIGOITIA' TAÍ P. URGAZLEA.

---

§ XII

-KARI ATZIZKIA

GARIAREN 23<sup>o</sup> GAREN EGUNeko BATZAREAN EGUZKITZA YAUNAK  
EGINDAKO IKERPENA<sup>1</sup>

*Erabilkerea.*

Izenai, zeindiñai ta aditzai ezarten yake :

1º Izenai : agekari, aginkari (ainkari), albokari, alda-kari, apaxkari, andrakari (andrekari), arnokari, ardai-kari, afíkari, astekari ... belaíkari, bidekari, boñokari, buñukari, egunkari, eguíkari, eltzekari, gaikari (gau-kari), izerkari, kiñakari, lepakari, malukari, mendikari, mustuúkari, násteakari, oinkari, ostikari, saunkari, soinkari, untzikari, úrkari, zaingari, zezenkari, etc.

2º Zeindiñai : agerkari, aundikari, beñíkari, garbikari, laisteíkari (lasteíkari), legunkari, luzakari, maitakari.

3º Aditzai : árapakari (aíapari), áfastakari, asmakari, aztakari, bultzakari, egaldakari, egikari, eginkari, eho-kari (egokari), egoskari, ekuskari, helkari, emaíkari (emon-ar-kari), emokari, erakuskari, erorkari, eskari,

1. Ikus EUSKERA onen I<sup>ko</sup> Atala, 77 gafén ofian.

igerikari, gertakari, gordekari, jaŕaikari, ikaskari, induzkari, idaulkari, iheskari, iñeskari, ikuskari, jokari (xokari), irakaskari, itzulikari, izakari, sarkari, sendakari, siñiskari, topakari, etc.

Ofezaz gañera : aintzinkari, arartekari, artekari, uŕunkari.

*Ikuŕpena.*

Itz askotan « egilea » adierazten dau; *adaŕkari* : beste batzuetan « izaikia »; *emaŕkari*.

*Egilea.*

1º « Agente profesional » adierazten daula diñoe : baña saŕi askotan egilearen berezko ayerkundea (inclinación natural, instintiva) baño besterik ez dikuŕala deritxat.

Esaterako : adaŕkari, aginkari (ainkari), apaxkari (apazkari), árapakari (árapari), árastakari, aŕikari, atralakari, auxikari, aztaparkari, boŕokari (buŕukari), induzkari, iñeskari, jokari (xokari), kaŕakari, kiŕinkari, kuŕinkari, mustuŕkari (musuŕkari), mutuŕkari, ortzikari (ozkari), ostikari, ostikokari, pulakari, puztarkari, saunkari, tirakari, topekari, tankari, zaingari.

2º Itz batzuetan « kari » ta « zale » alkaŕen kide dirala dirudi. Andrekari, aundikari, beŕikari, burukari, emaztekari (maztekari), gizonkari, ihauskari, mendikari, ostakari, solakari (solari), sorokari, zokokari, zaŕapokari.

3º Berezko ayerkundez naiz zaletasunez egiten dan edozer, lastertxu ekanduz egiten da-ta, ikuŕa pizka bat edatuaz beste barik « agente profesional » adierazo daike.

Azokari, belaŕkari, bidekari, bizkaŕkari, bolakari (bolari), burdinkari, soinkari, lepakari, piltzarkari, urzókari (usokari), zezenkari.

4º Itz gitxi batzuetan zerbaiten biŕa dabilena adierazten dau : ardaikari, urkari, urketari, eguŕkari, beŕikari.

5º Iñoz « keri » -ren aldakuntzea dala dirudi : aur-kari = aurkeri ; aundikari = andikeri.

6º Egunen izenakin iñoz « oro » -ren ordez dagola esan lei : larunbatkari (larunbakari), astelegunkari.

Geyenetan katari (edo = ri) dala okeí andi barik esan lei : adarka = adárkari, áfika = árikari, bolaka = bolakari, eginka = eginkari, aginka = aginkari, áfastaka = áfastakari, auxika = auxikari; buíuka = buíukari; induzka = induzkari; aztaka = aztakari; joka = jokari; aldaka = aldakari; apaxka = apaxkari, etc.

*Izaikia = emárkari.*

1º Itz batzuk ikuúpen biak daukez : naíz egilea naiz izaikia adierazten dabe :

andrakari (B) regalos (entre mujeres) : andrekari (BN, S) mujeriego.

asmakari, invento, agorero : asmari.

astekari, molienda semanal : semanero.

egikari (G?) acción : (AN) veraz.

eginkari (AN) agente : (L) acción.

eleizkari, funerales : (R) devoto.

helkari (Duv) acontecimiento : (G) mordedor.

eskari, súplica : (AN, BN, R) mendigo.

naikari, deseo, voluntad.

luzakari, dilación, demora : (BN, R) demorador.

naskari, comuña ; embrollón (escribano?).

salkari (G) mercancías : (R) vendedor.

sendakari (L) remedio : (Duv) medico.

2º Izaikia baño besterik ez dikuí uén doazan itz oneitan : arimakari, askari, atsalaskari (bat kari Ax) baratzekari, barazkari, bazkari, eltzekari, gabonkari, gogakari, izerkari, lelenkari, maitakari ; ehokari (egokari), egoskari, emárkari (ermakari, amarkai, emarkai) emokari, ekuskari, erakuskari, gertakari (gerthakari), gordekari, ikas-

kari, ikuskari, irakaskari, izakari (izakai, izaiki) izukari, pozkari, siniskari (siniskai) topakari (topatsari) uíkari, urtebaíkari, urteburükari, ustekari.

Itz oneitan dakusgun *k* ori atzizkiarena ala geikia (epentética) ete-da? Lenengo ta bein ataturiko itz oéitatik batzuk idazleak sortu dabez; ¿beti zuzen ibili ete-dira? Mendiburu'k ikaskari, enseñanza : Añibafo'k ikasari, estudiante, sortu ebezan ¿ondo sortuak ete-dira? Duvoisin'ek ikuskari, visión, espectáculo : Napañoan ikusari ta kusari, « presentes, regalos » dira. Egoskari'k bere egosari ta eltzekari'k bere eltzari daukez. Eskari ta bazkari eske ta bazka + ari dirala dirudi. Bigafen : euskal-eríak auíez erabili dituan itz oneik : astekari, emarkari, gabonkari, urtebaíkari, urteburukari, ba + ari izan daitekez : asteka + ari, emon-arka + ari, gabonka + ari, naiz ganbonko + ari, etc.

Itz gitxi batzuk bikotxak dira ta darakusen « ari » eredrako « hilo » da : joskari (jostalari, jostari) : jostalkari (jostelari).

Esandako guzti ori gora-bera « kari » atzizkiak bein baño saíago izaikia (objeto material) adierazten daula dirudi : baña Gipuzkoa'n « agerkari » manifestador da-la, boletín, publicación adierazteko itz ori ezin artu ta era-bili geinke. Ager, ageri, agiri aenbaten dira-la, publicación adierazteko « kari » erabili nai ba-da, agerkari baño agerikari naiz agirkari obeto legokela deritxat.

-Gai -Kai.

Erabilkerea.

Izen, zeindin eta aditzakin erabili da.

Izenakin : abadegei, apezgai (gei), andregai, andregei, ategai, buztárgiei, jabegei.

Zindiñakin : andigai, apaingai, beárgei, berdinkai, nausigai.

Aditzakin : emarkai, esakai, azkai (kei), egingai, ezargai, jankai, igorgei, jingai (gei), josgai, izakai, salgai (gei), etc.

*Ikuŕpena.*

Ikuŕpen bi daukaz : *egingai*, lo que está por hacerse ; *lankai*, instrumento de trabajo.

1º Itzik geyenetan atzizki onen ikuŕpena auxe da : Itzaren lenengo atalak dikuŕana izateko, on eta egokia dana : ori izateko dagona; baña oraindik ez dana. « Lo destinado a ser aquello que significa el primer elemento componente; apto para ser ; pero sin serlo todavía. »

Arakai (aragi-gai) esakai, eskai (esi-gai) azkai, ategai, azpigai (gaři) burdingai (gei) buztařigai (gei) ekai (egin-gai) ezargai, ihaurgai (gei, kei, ki, kin), idigai (gei) inpingei (ifingei) igorgei, ikasgai (gei) jingai, irakuŕgai (gei) irungai (gei) karelgei, kupelgai, lastogei, jabegei, nausigai (gei) opagei, salgai (gei) saskei, sinesgai, sinisgai (gei) sugai (gei) (sugarí) zeŕamagai, zezengei, zezingai (gei) zimisgai, zumisgai.

2º Ikuŕpena pizka bat edatuaz, « aspirantea » adierazo daike :

abadegei, apezgai (gei), andragei, andregai, bordalgei, emaztegai (gei) ezkongai (gei) gizongai (gei) senargai (gei).

3º Zerbaiterako on eta egoki dana : bidea (medio) : apaingai, bizikai, jankai, osakai, sendagai.

4º Lankaya (instrumento) itz gitxi batzuetan adierazten dau :

astikai (astinkai) látigo ; arilkai, berdinkai, iñauskai, irazkai, irozkai, lankai. Astarloa'k izakai (objeto, cosa, ente) sortu eban; baña eŕiaren izaiki obeto dagola deritxat.

Buztařia egin baño len buztařigaya deritxogun zulari,

bein buztañia egin ezkerro, buztañigaya iñok ez deritxo : ezkongai, ezkondu baño len ; baña ezkondu dana, ez da ezkongai : augaitik « publicación » adierazteko « agerkai » ezin artu geinke.

*Gailu -Kailu.*

Napaŕ, Laburditaŕ eta Zuberotáŕen « *gailu -kailu* » ta gure « *-gai -kai* », aenbaten dira. « Lo destinado a ; lo que sirve para. »

Hazkargailu (Duv) remedio, fortificante : baragailu, obstáculo : begiragailu, defensa : berhagailu, complemento : edergailu apaingailu, adorno : aŕapagailu (Duv) cepo : asperkailu (S.P) vindicación : bizigailu, víveres : bizkailu, cosa propia para reanimar : eragozgailu (Duv) obstáculo : estekagailu, estekailu, atadura : hezagailu, lo que sirve para humedecer : gantzugailu (Duv) bálsamo : gizengailu, condimento : gordagailu, madriguera : gozagailu (Duv) calmante : gozailu, dulce : jostagailu, jostailu, juguete : iratzargailu (S.P) despertador : khaŕakagailu (Duv) raspador : lotailu, ligadura : lótgailu, venda : ohargailu (S.P) signo : ongailu, condimento : onkailu (id) : ordethailu, reemplazante? : oroitgailu, monumento : phizgailu, phizkailu, cordial : sendagailu (Duv) remedio : sentagailu, fortuna : tapagailu, tapailu, remiendo, tapa : ungailu, abono : txestailu, gusto ?

Publicación, boletín adierazteko agerkailu ondo ez legoke ; baña berez itz egokia ba'litz be, atzizki ori ezagutzen ez daben euskaldunentzat itz írigaŕi litzake-ta, obe da ez aitatu.

*-Kizun.*

Atzizki au aditzakin erabilten da : ofaitik, damukizun eta lotsakizun : beaŕkizun eta luzakizun idoro dodaz.

*Ikuŕpena.*

Duvoisin' ek beste idazle (batzuk be bai) atzizki oni ikuŕpen berezia ezaŕi ta itsatsi eutsan : « ble » amaitzen diran erderazko zeindiñen ordez erabili eban : baña onetan okef egon zala dirudi.

Ahanzkizun, facil de ser olvidado, olvidable : *hauts-kizun*, frangible : autakizun, elegible : *higikizun*, movable : *hilkizun*, mortal (S.P) : leihakizun, deseable : *luzakizun*, demorable, prórroga : medeakizun, reparable : *onhes-kizun*, acceptable : *oroithkizun*, memorable : *salkizun*, venal : *sendakizun* (Ax) sanable : *zabalkizun*, *extensivo* ?

Atzizki onek, zeindiñal barik, izenak dagiz eta « objeto de acción futura » adierazten daula diñoe « objeto de acción » dala uste dot : *acción futura* zergaitik izan bear danez dakust : etorkizun eta ikuskizun'ek ori eraso dautsela deritxat.

Barkakizun (AN, L) perdón, indulgencia : Konpesakizun (B) materia de confesión : damukizun (B) objeto, motivo de arrepentimiento : Egikizun (B) quehacer (AN) acto : eginkizun (G) quehacer : elizkizun, función de iglesia : eramankizun (G) sufrimientos : érankizun (BN) rumor : (AN=BN) proverbio : esakizun, objeto de conversación : eskakizun, objeto de una súplica : ezinkizun (Ax) imposibilidad (cosa imposible) : gertakizun (G) suceso ; ibilkizun, objeto (proyecto) de viaje : igaŕkizun (B) acertijo, objeto de adivinanza : ikaskizun, lección, objeto de estudio : ikuskizun (B, G) espectáculo, objeto de visión : irakuŕkizun, objeto de lectura : maitekizun (Bart) objeto de amor : gomutakizun (Bart) lotsakizun, bochorno, oprobio : ondakizun (Añ) ruina? : sentikizun (B) sentimiento : objeto de recuerdo : pensakizun (Bart) objeto de pensamiento : siniskizun (Bart) objeto de fé : uíkalkizun

(AN) objeto (digno) de compasión : salkizun (Duv) (venal), objeto en venta. Damukizun, objeto de arrepentimiento : lotsakizun, oprobio, objeto de vergüenza, luzakizun *prórroga* izan ezker, agerkizun edo agirkizun *objeto de publicación* adierazteko itz egokia litzakela dirudi.

-Tza.

Atzizki onek be iñoz baño sañago izaikia (objeto) adierazten daulo esan lei : jayotza, bizitza, eriotza, agintza (promesa, legado) egoitza, residencia, ekintza, empresa, emoitza, emoitza, dádiva, emantza, producto, eskintza, ofrenda, etxaguntza, propiedad, ezkontza, matrimonio, garaitza, victoria, laguntza, auxilio, laborantza, luílantzta, agricultura, ohitza, costumbre; ohointza, uhuintza, robo, oturuntza, alimento, comida, puzkantza, residuos, triskantza, destrozo, zaítza, vejéz. Onelan : ager (tu) tza, agir (tu) tza, « publicación objetiva » izan daiteke.

-Gintza -Kintza.

« Publicación de la Academia Vasca » diñogunean, beste ezer baño geyago auxe adierazo nai dogu : auŕean daukagun idaztiñoa *nok* argitaratu dauan. Oŕetarako -gintza naiz-kintza atzizkia berezibizikoa dala deritxat. Aurgintza, seingintza, umegintza (parto) bidagintza, acto de abrir o reparar caminos : beargintza, faena ; langintza, trabajo : lugintza, labranza, etc.

Onelan ba, egurkintza, atxurkintza esaten da-ta, « Puplicación de la Academia Vasca » « Euskaltzaindiaren agerkintza » esango neuke.

---

§ XIII

## DEL VOCABLO VASCO CORRESPONDIENTE A “ PUBLICACIÓN ”

(ENMIENDA AL TRABAJO DEL ACADÉMICO Sr. EGUZKITZA, PRESEN-  
TADA EN LA MISMA SESIÓN POR DON R.-M. DE AZKUE)

Después de exponer un sin número de derivados de los sufijos *-kari*, *-gai* y *-kai*, *-gailu*, *-kizun*, *-tza* y *-gintza* (que Añibarro en dos voces terminadas en *r* dijo *-kintza*), propone el Sr. Eguzkitza tres neologismos como correspondientes al vocablo « publicación » : 1º *agerkizun* edo *agirkizun* « objeto de publicación » adierazteko itz egokia litzakela dirudi ; 2º *agertza*, *agirtza* « publicación objetiva » izan daiteke ; 3º *egurkintza*, *alxurkintza* esaten da-ta « Publicación de la Academia Vasca » *Euskaltzaindiaren agerkintza* esango neuke.

La voz « Publicación » tiene, según la Academia españole, dos acepciones (de hecho resultan tres) : una (que vale por dos) acción y efecto de publicar ; la otra, obra literaria o artística publicada.

Asienta nuestro caro colega que cuando decimos « Publicación de la Academia vasca » queremos manifestar sobre todo quién ha publicado el pequeño escrito que tenemos delante. Por lo ménos en esta enmienda tratamos tan solo de la cosa publicada, no de la corporación que la da a luz. El neologismo *agerkizun* que da él como aceptable, como tal figurará en la pequeña lista que se expone al fin de este trabajito : el vocablo *agertza*, que también nos propone, no parece tan aceptable por la misma razón que da él para rechazar *agerlari* : la de tener varias acepciones. Son muy marcadamente distintas las

que tiene el sufijo *-tza* en *otatza* « argomal », *bizitza* « vida », *itzaintza* « pastoreo de bueyes ».

El neologismo *agerkintza*, que como más suyo nos propone el Sr. Eguzkitza, tampoco figurará en la lista de que antes hablo. El sufijo *-gintza* tiene tambien por lo menos tres acepciones : 1º de fabricación, producción, acto de producir en *aurgintza*, *seingintza*, *umegintza*; 2º de agencia y oficio en *argintza*, *zidargintza*, *zurgintza*; 3º de taller o lugar de trabajo en *teilagintza*, *zidargintza*, etc...

Además de esta multiplicidad de acepciones o polisemia, tiene este sufijo (para no poder ser admitido en nuestro caso) la característica de unirse siempre a nombres como *aur*, *sein*, *ume*, *kila*, *zur*, *zidar*, *oial*... etc., nunca a verbos. En *agerkintza* figuraría unido, más que al adjetivo *ageri* que nominalizado significa « acta », al verbo *agerlu*.

